



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURU JN.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 16an bilduta, alboan adierazten diren kideak bertan zeudela, zure **kontsulta** aztertu du (erregistro zk.:83/2021), **Euskadiko Jarduera Fisiko eta Kirolaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: DNCG_LEY_2207/19_10)**.

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Batzordearen iritzia Zubizarreta Arteché eta Calonge Crespo batzordekide jaunek adierazi dute.

BATZORDEBURUA:
Sabino Torre Díez jauna.

BATZORDEBURUORDEA:
Xabier Unanue Ortega jauna.

BATZORDEKIDEAK:
M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Imanol Zubizarreta Arteché jauna.
Iñaki Calonge Crespo jauna.
Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea.
M.^a Jesús Urkiola Mendibil andrea.

IDAZKARIA:
Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

99/2021 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2021eko maiatzaren 3an emandako Aginduaren bidez (egun berean sartu zen Batzordean), aztergai jarri da goiburuan adierazitako lege-aurreproiektua.
2. Bidalitako espedientea, lege-aurreproiektuaren testuaz eta aipatutako eskaera-aginduez gain, honako dokumentu hauek osatzen dute:
 - a) Izapidetze-aldian erabili diren aurreproiektuaren testuaren bertsioak.
 - Aurreproiektuaren testua, 2019ko irailaren 3ko aldez aurreko onarpenari dagokiona.
 - Lege-aurreproiektuaren zirriborroa, 2020ko martxoaren 3koa.





- Lege-aurreproiektuaren zirriborroa, 2020ko abenduaren 23koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB) txostena egiteko.
 - Batzorde honi igorri zaion aurreproiektuaren bertsioa.
- b) Sail sustatzaileak egindako dokumentuak:
- Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2019ko ekainaren 12koa, prozedura abiatzekoa.
 - Justifikazio-memoria teknikoa, 2019ko irailaren 2koa.
 - Agindua, aldez aurreko onarpenarena, 2019ko irailaren 2koa.
 - Ebazpena, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2019ko irailaren 3koa, Euskadiko jarduera fisiko eta kirolaren Lege-aurreproiektua jendaurrean jartzeko dena.
 - Generoaren araberako eragin-txostena, 2019ko irailaren 10ekoa.
 - Memoria ekonomikoa, 2020ko martxoaren 4koa.
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren memoria, 2020ko abenduaren 28koa, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen alegazioak ikusita, Bitariko Batzordearen ondoren Lege-aurreproiektuaren testuan egindako aldaketei buruzkoa.
 - Lege-aurreproiektua egiteko prozeduraren izapidearen memoria, 2021eko apirilaren 26koa.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailek aurkeztutako alegazioak:
- Osasun Sailaren alegazioak, 2019ko irailaren 18koak.
 - Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren idazkia, 2019ko urriaren 3koa, zeinaren bidez uko egiten baitzaio alegazioak aurkezteari.
 - Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren idazkia, 2019ko urriaren 9koa, zeinaren bidez uko egiten baitzaio alegazioak aurkezteari.
 - Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren idazkia, 2019ko urriaren 10ekoa, zeinaren bidez uko egiten baitzaio alegazioak aurkezteari.



- Segurtasun Sailaren alegazio-idazkia, 2019ko urriaren 11koa.
 - Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren alegazio-idazkia, 2019ko urriaren 7koa.
 - Hezkuntza Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren alegazio-idazkia, 2019ko urriaren 27koa.
 - Lan Harremanen zuzendariaren idazkia, 2019ko abenduaren 18koa, zeinaren bitartez aditzera ematen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ordezkariak duten erakunde sindikalek ez dutela alegaziorik aurkeztu.
 - Lan eta Justizia Sailaren idazkia, 2020ko otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez uko egiten baitzaio alegazioak aurkezteari.
- d) Beste erakunde publiko batzuek aurkeztutako alegazioak:
- Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako alegazioak, 2019ko urriaren 11koak.
 - EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartearen idazkia, 2019ko urriaren 24koa, zeinaren bitartez eskatzen baita alegazioak aurkezteko epea luzatzeko; eta, ondoren, elkarte horrek aurkeztutako alegazioak, 2019ko azaroaren 14koak.
 - Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako alegazioak, 2019ko urriaren 8koak.
- e) Pertsona eta erakunde interesdunek aurkeztutako alegazioak:
- Ibar Ezkerra Ikastola Koop. Elkartearen alegazioak ekartzeko ofizioa, 2019ko urriaren 1ekoa.
 - Ibar Ezkerra Ikastola Koop. Elkartearen alegazioak, 2019ko urriaren 1ekoak.
 - Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Animalien Zuzenbideari buruzko Azterlan Taldearen alegazioak, 2019ko urriaren 5ekoak.
 - Santiago Arostegui Oleagordia jaunak aurkeztutako alegazioak, 2019ko urriaren 9koak.
 - Euskadiko SATSE - Erizaintza Sindikatuaren alegazioak, 2019ko urriaren 10ekoak.



- Euskal Federazioen Batasunaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Futbol Federakundearen alegazioak (datarik gabe).
 - Euskal Herriko Ur-azpiko Jardueren Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Atletismo Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Kirol Egokituen Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Mahai Tennis Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Halterofilia Federazioaren alegazioak, 2019ko irailaren 26koa.
 - Gipuzkoako Saskibaloia Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - IREKIAren bidez jasotako alegazioak.
 - ASFEDEBI - Bizkaiko Kirol Federazioen Elkartearen alegazioak, 2019ko urriaren 11koak.
 - Boxeo/kontaktu-kirolen lehiaketan Federazioaren alegazioak (datarik gabe).
 - Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren alegazioak, 2019ko urriaren 11koak.
 - Euskadiko Podologoaren Elkargo Ofizialaren alegazioak, 2019ko urriaren 18koak.
 - Deportivo Alavés SAD futbol taldearen alegazioak, 2019ko urriaren 11koak.
 - Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren alegazioak, 2019ko urriaren 11koak.
 - GEHITU - Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen elkartearen alegazioak, 2019ko urriaren 31koak.
 - UNICEFen Euskal Herriko Komitearen alegazioak (datarik gabe).
- f) Prozedurak iraun bitartean barne hartu diren txostenak:
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (DACIMA) txostena.



- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
 - Emakunderen txostena.
 - 26/2019 txostena, abenduaren 19koa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurarena.
 - 53/2019 txostena, abenduaren 26koa, Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena.
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza juridikoaren txostena.
 - Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.
 - Bitariko Batzordeak 2020ko azaroaren 5ean egindako bileraren akta (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza - Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea).
 - Kirolaren Euskal Kontseiluko idazkaritzaren ziurtagiria.
 - Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena.
 - Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostena.
- g) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren txostena, 2020ko martxoaren 4koa, jasotako alegazioei eta egindako txostenei buruzkoa.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

3. Aztergai izan dugun lege-aurreproiektuak 160 artikulua ditu, 15 titulutan egituratuta. Azken zatiak 14 xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, bi xedapen indargabetzaile eta hiru azken xedapen ditu.
4. Legearen I. titulua Legearen aplikazio-esparruari eta printzipio orokorrei buruzkoa da. Honako artikulua hauek barne hartzen ditu: 1. artikulua, xedeari eta aplikazio-esparruari buruzkoa; eta 2. artikulua, printzipio gidariei buruzkoa.
5. II. tituluaren, «Administrazio-antolamendua» izenekoan, 3.etik 8.era bitarteko artikulua sartzen dira, eta jarduera fisikoaren zein kirolaren gaineko eskumenen banaketa ezartzen du lurralde-mailen artean, Administrazio Orokorraren elementu organiko eta instrumental batzuei ere erreferentzia eginda. Kirolaren Euskal Kontseiluaren eraldaketa nabarmentzen da bertan; izan ere, bere barnean bilduko ditu 14/1998 Legean jasota zeuden batzorde independente guztiak.



6. III. titulua da Lege honen berritasun nagusietako bat, 14/1998 Legearekin alderatuta, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko neurri multzo bat jasotzen baitu. 9.etik 19.era bitarteko artikulua hartzen ditu, eta horietan jasotzen dira neurri orokorrak eta bereziak; arreta bereziko taldeentzako neurriak; hezkuntza-arloko neurriak; garraio, errepide eta bide-segurtasunari lotutako neurriak; hirigintzari dagozkion neurriak; kirol-ekipamenduak eskuragarri izateko neurriak. eta kirol-txartel bakarra; gizarte-zerbitzuen arloko neurriak; lan-arloko neurriak; osasungintzako neurriak; eta kontratazioaren arloko neurriak.
7. IV. titulua ere berritzailetzat aurkezten da. Sei artikulua biltzen ditu (20-26), jarduera fisikoan eta kirolean gobernantza ona bermatzera bideratutakoak. Kirol-lehiaketetan integritatea, gardentasuna, berdintasuna edo gizarte-inklusioa bermatzeko printzipioez gain, jasota dago herritarrek eskubidea dutela kirol-esparruan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko, eta esparru horretan animaliak babesteko artikulua espezifikoa ere badago barne.
8. V. tituluak, «Kirol-erakundeak» izenekoan, EAEko kirolaren elkarte-egitura arautzen da. Legearen berritasun nagusia federazio-sistemaren funtsezko berrantolaketa da, giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatze aldera. Legearen bidez, kirol inklusioa lortzeko eta desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen oinarrizko eskubideen errespetua bermatzeko oztopoak desagerrarazi nahi dira. Titulua zazpi kapitulutan egituratuta dago, honako hauetan hain zuzen ere: I) xedapen orokorrak (27. eta 28. artikulua); II) Kirol-klubak (29. artikulua); III) Kirol-elkarteak (30. artikulua); IV) Kapitaleko Kirol-sozietateak (31. artikulua); V) Kirol-federazioak (32.-52. artikulua); VI) Euskal Kirol Federazioen Batasuna eta Euskal Selekzioak (53.-55. artikulua); VII) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroa (56.-60. artikulua).
9. VI. titulua kirol-lehiaketei eta lizentziei buruzkoa da, eta ez da aldaketa handirik egin. Bi kapitulutan egituratuta dago: kirol-lehiaketei buruzkoa (61.-67. artikulua) eta kirol-lizentziei buruzkoa (68.-71. artikulua).
10. VII. titulua eskola-adineko, unibertsitateko eta lanbide-heziketako jarduera fisikoa eta kirola arautzen ditu. Titulua hiru kapitulu ditu. Lehenik eta behin, eskola-adineko jarduera fisikoa eta kirola lantzen ditu (72.-76. artikulua), eta berritasun esanguratsu bat dakar: 0-6 urte arteko haurrentzako jarduerak. II. kapituluan arreta berezia ematen zaie unibertsitateko jarduera fisikoari eta kirolari (77.-79. artikulua). Azkenik, berritasun gisa, III. kapituluan lanbide-heziketako zentroak kontuan hartzen dira (80.-81. artikulua).
11. VIII. tituluak jorratzen dira ikerketa, berrikuntza eta kirol-teknikarien prestakuntza, bai eta boluntario lana ere (82.-84. artikulua). Ez da ageri titulazioen eskakizuna –kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko lege berriak arautzen



baitu gai hori-, eta beste taxu bat ematen zaio Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolaren rolari.

12. IX. tituluan, kirolarientzako laguntza eta babesaraututa dago, hiru kapitulutan egituratuta. Horietako lehenengoan xedapen orokorrak jorratzen dira, artikulua bakarrean. II. kapitulua (86. eta 87. artikulua) arriskuen estaldurari eta erantzukizun zibilari buruzkoa da. III. kapituluak (88.-92. artikulua) txertatzen du berritasunik esanguratsuena kirolarientzako arreta sanitarioari edo osasunlaguntzari dagokionez; izan ere, bertan xedatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren kirol-jardunari lotutako asistentzia sanitarioa osasun-sistema publikoak emango duela, bere kontura. Estatuko eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeari lotutako asistentzia sanitarioa soilik salbuesten da.
13. X. titulua goi-mailako kirolari eskainia da, eta 93.-101. artikulua hartzen ditu. Orain arte indarrean egon den araudia hartu da oinarri gisa, berritasun gutxi batzuk eginez. Alde batetik, gobernu-entzuten eskumenak argitzen dira, eta Eusko Jaurlaritzari ematen zaio protagonismo handiena; Basque Team Fundazioak izan behar duen rola ere aipatzen da, laguntza emateari eta goi-mailako kirol-programa batzuk kudeatzeari dagokienez. Emakumezko kirolari haurdunaldietan eta amatasunean eman beharreko babesari arau-mailarik handiena ematea ere bada helburua.
14. XI. tituluan, «Kirol-ekipamenduak eta kirol-zerbitzuak» jorratzen dira, 102. artikulutik 110. artikulura. Gaur egun beharrezkotzat hartzen ez diren aurreikuspen batzuk kendu dira (kirol-ekipamenduen eraikuntza-baldintzei lotutako alderdietan bereziki), beste arau-tresna batzuetan araututa baitaude, eta ikuspegi berriak txertatu dira ekipamendu horien plangintzan.
15. XII. titulua aurreproiektuaren 111. eta 112. artikulua hartzen ditu, eta indarkeriaren fenomenoaren prebentzioari dagokionez, jarduera fisikoari eta kirolari eragiten dizkieten beste alderdi batzuk gaineratzen dizkio aurreko legegintza-tratamenduari, hala nola arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia.
16. XIII. tituluan kirol-arloko diziplina-araubidea jorratzen da. 113. artikulutik 131. artikulura bitarte, berritasunak aurkezten dira, hala arau-hauste berrien tipifikazioei dagokienez –bereziki kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziari lotuta-, nola prozedurak argitzei –arruntak eta apartekoak– edo arau-hausteen egiltzaren definizioari dagokienez. Diziplina-erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantzien araubideari lotutako aldaketak eta berritasunak ere sartu dira, hura erantzukizun ia objektibo gisa konfiguratzeko baita.



17. XIV. tituluan kirol-ikuskapena eta zehapen-araubidea jorratzen dira. Aurreproiektuak kapitulu bana eskaintzen dio gai horietako bakoitzari. Lehenengoan, ikuskapenari eskainitakoan, 132.-137. artikulua biltzen dira. II. kapituluak zehapen-araubidea hartzen du, 138. artikulutik 149. artikulura bitartean. Bigarren kapituluak, arau-hausteen tipifikazioari eta zehapenei lotutako zenbait alderdi doitu dira, eta argitzen saiatu da zer administrazio publikok baliatu behar duen zehatzeko ahal administratiboa une bakoitzean.
18. Azken tituluan, XV.ean, kirol-justiziari buruzkoan, bereizi egiten dira kirol-gatazka batzuen administrazio-izaera eta izaera pribatua, aurkaratze jurisdikzionalako araubide desberdina argitzeko asmoz. Hiru kapitulutik egituratuta dago; lehenengoa gatazka konpontzeari buruzkoa (150. eta 151. artikulua); II. kapituluak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari buruzkoa (152.-156. artikulua); eta, azkenik, III. kapituluak arbitrajeari eta bitartekaritzari buruzkoa (157.-160. artikulua).
19. Xedapen gehigarrietan honako gai hauek jorratzen dira: EAEko federazio-sistemaren berrantolamendua; bertako kirol-diziplinak Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondare immaterial deklaratzeko espedienteak; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola; Gobernantza Onaren Kodea; Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren jardueren hasiera eta langileen integrazioa; kirol-kluben onura publikoaren deklarazioa; eskola kiroleko lankidetzak; kirolaren esparruan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko planak; ikuskapen-plan orokorra; udalerrietan kirol-arloko elkarte-sarea sendotzeko plana; jarduera fisikoaren eta kirolaren industria sustatzeko plana; hizkuntza ofizialen erabilera; kirol-teknikariei buruzko aipamenak; eta kirol-erakundeek erabakiak hartzea.
20. Lau xedapen iragankorretan jorratzen dira kirol-federazioen estatutuak egokitzea, aurreko kirol-legeria garatzeko xedapenak, aurretik hasitako diziplina- eta zehapen-espedienteak, eta Jarduera Fisikoaren Zerbitzuaren izendapen berria.
21. Xedapen indargabetzaile espezifiko bat jasota dago, 14/1998 Legeari dagokiona, baita beste xedapen indargabetzaile orokor bat ere; eta, amaitzeko, azken xedapenetan jorratzen dira zehapenen zenbatekoaren eguneratzea (lehenengoa); legearen garapena (bigarrena); eta indarrean jartzea (hirugarrena).

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

22. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluaekin bat eman da; artikulua horrek Batzordearen kontsulta-funtzioaren eremutzat jotzen ditu lege-aurreproiektuak, edozein dela



ere haien arloa eta xedea, betiere biltzen dituen salbuespenen barruan sartuta ez badaude, eta honako hau ez da horietako bat.

KONTUAN HARTZEKOAK

I ESKUMEN-TITULUA

23. Irizpenaren xede den aurreproiektuaren titulu nagusiak Autonomia Estatutuaren (EAE) 10.36 artikuluan kirolari dagokionez aurreikusitako eskumena du oinarri.
24. Eskumen horrekin batera, 10. artikuluan aurreikusitako beste eskumen eskusibo batzuk ere baditu Euskal Autonomia Erkidegoak, proiektatutako araudiarekin gutxi-asko lotuta daudenak: autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua, Estatutuaren arauen barruan (2. apartatua); EAEko zuzenbide substantiboaren berezitasunetik eta beronen antolamendutik datozen prozedura administratiboak (6. apartatua); laguntza soziala (12. apartatua); elkarteak (13. apartatua); kultura (17. apartatua); aisia eta atsedena (36. apartatua); ikuskizunak (38. apartatua); emakume kondizioa eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika (39. apartatua).
25. Era berean, ekimenean intzidentzia halako bat ere badute Euskal Autonomia Erkidegoak beste arlo batzuetan duen legegintza-garapeneko eta betearazpeneko eskumenek: bereziki osasungintzan (18. artikulua), baina baita hezkuntzan ere (16. artikulua).
26. Aurreproiektuan kontuan hartu da gero eta lotura handiagoa dagoela kirolaren eta osasunaren artean; lotura horrek aitortza esplizitu eta orokorra dauka Konstituzio Auzitegiaren doktrinan ere. Konstituzio Auzitegiaren urriaren 1eko 194/1998 Epaiak gogoratu duenez, estu lotuta daude osasuna, heziketa fisikoa eta kirola, hala heziketa fisikoa eta kirola osasunari eusteko bide direlako, nola jarduera fisikoetan eta kiroletan behar ez bezala aritzeak, «batez ere askotan arrisku ez txikia dakarten kiroletan», ondorio oso txarrak dakarzkionalako osasunari.
27. Ikuspegi horretatik, eskumenen azterketak Espainiako Konstituzioaren (EK) 43. artikulua ere hartu behar du oinarri. Artikulu horrek, 1. apartatuan osasunaren babeserako eskubidea aitortu ondoren, 2. apartatuan adierazten du botere publikoei dagokiela osasun publikoa antolatzea eta zaintzea, eta, azkenik, ezartzen du botere publikoek osasun-heziketa, heziketa fisikoa eta kirola sustatuko dituztela, eta aisialdia egoki erabiltzeko erraztasunak emango dituztela. Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri diren aldetik, printzipio horiek aitortuz, errespetatuz eta babestuz zertuko da botere publikoen jarduna, EKren 53.3 artikulua xedatzen duenaren arabera.



28. Eskumenen banaketa ikuspegi bikoitzetik egin behar da: estatua/autonomia-erkidegoa eta autonomia-erkidegoa/lurralde historikoak. Horrela, lehenengo eta behin, EKren VIII. tituluan eta Euskadiko Autonomia Estatutuan jasotako aplikazioko aurreikuspenak eta aginduak egiaztatuko dira eta, gero, Euskadiko Autonomia Estatutukoak bertakoak eta erakunde erkideen eta horietako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legekoak. Toki-araubidearen gaineko legeriak gai honi buruz aurreikusi dituenen azterketarekin osatuko da analisi hori.

A) Estatuari dagokionez

29. Testuinguru horretan, eta, oraingoan bai, ekimenaren oinarri diren EAEEren eskumenetako lehenengora itzulita, gogorarazi behar da kirolaren arloan ezarritako eskumenaren (EAEEren 10.36 artikulua) irismena Espainiako Konstituzioak emandako aukerak Estatutuan gauzatzearen ondorio dela. Konstituzio Auzitegiak apirilaren 18ko 80/2012 Epaian adierazi zuenez, Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen (EKL) artikulua baten harira, «EKren 148.19 artikuluan adierazitakoak, hots, autonomia-erkidegoek kirola eta aisialdiaren erabilera egokia sustatzeko eskumenak bere gain hartu ahal izango dituztela, balio hermeneutikoa du; Konstituzioaren nahia da gai hori autonomia-erkidegoek beren gain hartzea».
30. Dena den, auzitegi berak ñabardurak egin dizkio autonomia-erkidegoek arlo horretan duten eskumenen eskusibotasunari. Urtarrilaren 10eko 1/1986 Epaian esan zuenez, Estatutuak adierazitakoari jarraituz kirolaren arloko eskumen eskusiboa bere gain hartzea nahitaez lotu behar da, batetik, autonomia-erkidegoen lurralde-eremu mugatuarekin, eta, bestetik, Espainiako kirolari «bere osotasunean» eragin dakiokelakoarekin, haren interes orokorrak –erkidegoz gaindikoa– kontuan hartuta, halakoetan Estatuari egokituko baitzaio interes horiek defendatu eta sustatzea. Eta duela denbora gutxiago, EKLn kirolaren arloan baliatutako eskumenaz jardutean, gogorarazi du autonomia-erkidegoen eskumenak –esklusibo moduan eratu direnak barne– honela egikaritu behar direla: (i) Beste eskumen-titulu batzuk direla-eta Estatuari dagozkion eskumenak errespetatu, eta (ii) eskumenen lurraldetasun-printzipioari jarraituz, lurralde-autonomien sistemari inplizitu zaion zerbait bezala, EAEEren 20.6 artikuluan espresuki adierazten den moduan (Konstituzio Auzitegiaren 80/2012 Epaia, apirilaren 18koa).
31. Alor honetan, gainera, ez dago Estuari dagokion eskumenik, eremua orokortasunez modulatu edo mugatzen duenik. Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeak, Estatukoa berau, hauek baino ez ditu jotzen oinarritzotzat: 3. artikuluan hezkuntzari dagokionez xedatutakoa (1., 2., eta 3. apartatuak, hezkuntzari buruzkoak), 149.1 artikuluan 3. arauaren babesean, baina horrek



ez du aurreproiektuarekin gatazkarik sortzen. Bestetik, oinarrizkotzat jotzen du 53.5 artikulua ere, EKren 149.1 artikulua 18. arauan aurreikusitakoaren arabera. Jardueren erkidegoz gaindiko eremua konexio-puntu gisa ezarrita, Kirol Kontseilu Gorenari esleitzen zaio autonomia-erkidegoekin koordinatzeko funtzioa, eskola-kirolaren programazioak estatu- zein nazioarte-mailako proiektzioa duen kasuetan.

32. Estatuaren eskumenaren mugen ondorioei dagokienez, interesgarria da kontuan izatea Konstituzio Auzitegiak, urriaren 12ko 33/2018 Epaian, nola interpretatu zuen Kirolaren 10/1990 Legearen 32.4 artikulua idazketa, Sektore publikoaren arrazionalizazioari eta administrazio-erreformarako beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legearen 23. artikulua sartu zion testuan. Estatu-mailako manu horren asmoa zen erkidego-mailako federazioen lizentzien ondore zeharkako eta horizontala ezartzea, eta auzitegi nagusiak uko egin zion, honako hau kontuan hartuta:
 - a) Lehenik eta behin, kirol-federazioak «delegazioz, izaera administratiboko funtzio publikoak» betetzen dituzten «erakunde pribatu» izateak eragotzi egiten du EKren 149.1.18 artikuluan jasota dagoen «administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarri» titulua aplikatzea.
 - b) Bigarrenik, adierazitako manuaren edukiak ez du aukerarik ematen EKren 149.1.13 artikulua esparruan kokatzeko.
33. Ondorioz, gatazka kirol-gaietara birbideratzen da, eta, horrela, Estatuak mintzagai dugun gaiaren gainean dituen eskumenaren mugak berresten dira. Auzitegiak, azkenean, eutsi egin zion manuari, ulertzen baitzuen manuaren ondoreak norabide bakarrean gertatzen zirela. Hau da, erkidego-mailako lizentziek aukera ematen dute estatu-mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, baina Estatuak ezin ditu autonomia-erkidegoak behartu beren lehiaketa ofizialetan gainerako autonomia-erkidegoen lizentziak onartzera; salbu eta, jakina, haiek beren eskumenen esparruan hala erabakitzen badute.
34. EKren 149.1.16 artikulua Estuari aitortzen dion eskumena («Osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra») EAEEren 18. artikuluaekin uztartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen baitio, barne-osasunaren arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea.
35. Aurreproiektuaren osasunaren alorreko xedeari dagokionez, eta maiatzaren 25eko 98/2004 Epaia arabera, «EKren 149.1 artikulua 16. arauak ere aipatzen dituen oinarriak finkatzea edota koordinazio orokorra (zati edo azpisistemen aniztasuna multzo edo sistemara bildu nahi du, kontraesanak saihestuz eta disfuntzioak gutxituz, honako hauen arabera: Konstituzio Auzitegiaren 32/1983 Epaia, apirilaren 28koa, 2. OJ; 42/1983



Epaia, maiatzaren 20koa, 3. OJ; 80/1985 Epaia, uztailaren 4koa, 2. OJ) ezin dira garatu autonomia-erkidegoek arau horien arloetan eduki ditzaketen kideko eskumenen edukia husteraino (Konstituzio Auzitegiaren 32/1983 Epaia, apirilaren 28koa, 2. OJ)». Hori horrela, bai xedea bera bai aurreproiektuak arlo sanitarioan aurreikusitako neurriak egoki kokatzen dira autonomia-erkidegoaren eskumenen artean.

36. Eskema hori jarraituz, esan genezake, kirolaren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena duela EAEko kirola antolatzeko, eta eskumen hori egikaritu dezakeela, aurreproiektuan egin duen bezala, kirolari –bereziki lehiaketako kirolari– bideratutako erregulazioa ezarrita, baita banaka zein era antolatuan egiten den jarduera fisikoari bideratutakoa ere. Eta ikuspegi sanitariotik, berriz, Estatuak ezarritako oinarriak hartu beharko ditu aintzat, Estatu osoan guztien interesak modu bateratuan eta berdintasun-baldintzen arabera ziurtatzeko xedea baitute oinarriok, baina hortik abiatuta autonomia-erkidego bakoitzak, bere interesak aldezte aldera, egoki deritzen «berezitasunak sar ditzake bere estatutuak dena delako gai horretan esleitzen dizkion eskumenen esparruaren barruan» (Konstituzio Auzitegiaren honako Epai hauek: 32/1981, 1/1982, 32/1983, 48 eta 49/1988, 69/1988; baita berriagoak ere: 149/1991, 141/1993, 109/2003 eta abar).
37. Hirugarrenik, aipatzekoa da aurreproiektuan araututa dauden zenbait gaik hezkuntzarekin duten lotura, bereziki 12. artikuluan jasota dauden gaiek eta eskola-kirolarekin lotura dutenek. Kasu horretan, EAEEren 16. artikuluan jasota dagoen hezkuntza-arloko eskumenak irakaskuntza osoa barne hartzen du, bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikuluari eta berau garatzen duten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe, eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe. Horrek guztiak ez du eragotziko Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen 3. artikuluan (1., 2. eta 3. apartatuak) eta 53.3 artikuluan aurreikusitakoa.
38. Estatuak, bere eskumenen egikaritzean, honako lege hauek eman zituen: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (LOE) eta 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kalifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa –biak ala biak berriki aldatuak, honen bidez: 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 30eko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena (2020ko abenduaren 30eko BOEn argitaratua)–.
39. Laugarrenik, era instrumentalean bada ere, eragin esanguratsua dauka autogobernu-erakundeentzako antolamendu, erregimen eta funtzionamenduaren gaineko eskumenak, Estatutuaren arauen barruan. Eskumen hori egikaritzen da aurreproiektuak barne hartzen dituen erakunde, organo edo unitateak eta horien funtzioak ezartzen dituelako –Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseilua,



Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia, Basque Team Fundazioa edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola-.

40. Adierazitako eta aurreproiektuarekin lotutako gainerako eskumenei dagokienez, horien hondar-eragina kontuan hartuta, uste dugu nahikoa dela analisi honen hasieran egin den aipamena.

B) Lurralde historikoei dagokienez

41. Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenei dagokienez, berriz, Lurralde Historikoen Legeak (LHL) 7.b).6 artikuluan esleitu die foru-organoei arau autonomikoak garatu eta betearaztea alor hauetan: kirola sustatzea, eskola-kirolaren programak eta denontzako kirolarenak. LHLren 8.2 artikulua araberan, arautegia garatzea eta egikaritzea lurralde historikoei dagozkien gaietan, honako ahal hauek dauzkate: a) erakunde erkideetatik datozen arauen garapena; b) erregelamendugintza; c) administratiboa, ikuskapena barne; d) administrazio-bidetik berrikustekoa.
42. EKLk banaketa hori osatu zuen eta, hari dagokionez, aurreproiektuak eskola-kirola 0 eta 6 urte bitarteko haurrengana zabaldu besterik ez du egin. Horrek ez du aldatzen egungo eskumenen antolamendua, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokien eskumena egikaritzea baitakar berekin.
43. Aski izan bekigu esatea LHLk, oro har, eskema klasikoarekin bat datorren banaketa egiten duela oinarritzko arauen eta garapen- eta egikaritze-arauen artean; horren araberan, erakunde erkideek beretzat gordetzen dute oinarritzko edo funtsezko antolamendua ezarri ahal izatea, arau guztiek oinarri bera izan dezaten autonomia-erkidego osoan, eta lurralde historikoek, bestalde, euren eskuduntza arautzailea erabiltzeko esparrua izan behar dute eta gaiari buruzko foru-interesei begira egokitzen jotzen dituzten arauketak sartu behar dituzte. EKLk ere hartu du planteamendu bera, eta inolaz ere ez du LHLren eskema aldatu nahi.

C) Udalerriei dagokienez

44. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean, TAOL) 25.2.m) artikuluan ezarri du udalen eskumena «kultura eta kirol-erakundearen jardueraren zein instalazioetan». 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakunde berrizkoak (ETEL), 17.1 artikulua 19. apartatuan, eskumen hau aitortzen die Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei: «lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan», «kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea».
45. EKLk, kirolaren gaineko eskumen sektorialean oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde-mailen arteko eskumen-banaketa ezarri zuen, eta



aurreproiektuak eutsi egiten dio banaketa horri, betebeharrak berririk inposatu gabe –eta, prozeduraren analisisan ikusiko dugun eran–; ondorioz, ez dago zertan berrikusi udalerrien berezko eskumenak eta egungo finantzaketa.

II EGITEKO PROZEDURA

46. 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak (aurrerantzean, XOEPL), 3.1 artikuluan bere ezarpen-eremuaren barruan sartu ditu lege-forma duten xedapen orokorrak.
47. Aholku-batzordearen doktrina jarraituaren arabera, ohartarazi beharra dago, araubide-zertaz horrek ez duela balioz gabetzen lege-aurreproiektuak egiteko prozeduraren azterketan lehenetsi beharreko ikusmoldea, bestelakoa izan behar duena, halakoak izapidetzearen ondorioz sortutako produktuek izaera berezia baitute.
48. XOEPLren asmoa da gobernuak beste arauen proiektuetan aplikatzen den metodologia bera erabiltzea lege-proiektuak egitean ere. Izan ere, xedapenaren zioen azalpenak dioenez, horrela «...legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta finagoa den teknika juridikoaz artikulatuta banatua».
49. Legebiltzarrean hedatzen da bere osoan legegintza-prozedura. Horregatik, EK-k botere publiko guztiei bizitza politikoan arbitrariotasuna galarazteko edo herritarren parte-hartzea sustatzeko ezartzen dizkien betekizun orokorretatik harago, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAEE) edo, batzuetan, lege organikoek baldintzak ezartzen dituzten kasu berezietan izan ezik, lege-proiektuek bete beharreko baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, iritzia eman eta erabakia hartu ahal izan dezan; gutxienez ere, memoria orokorra, generoaren araberrako eraginaren eta zuzentze-neurrien aurretiazko azterketa, finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena –aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan–, Batzorde honen irizpena, eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 133.2 artikulua).
50. Beraz, lege-aurreproiektuei dagokienez, prozedurak nekez jar dezakeenez arriskuan amaierako produktuaren baliozkotasuna, helburu nagusi batekin aztertzen da egite-prozesua: hain zuzen, araua proposatutako edukiarekin idaztea eragin duen oinarri objektiboa ezagutzea. Ondorioz, legearen arrazionaltasunaren inguruan ikertzen da –ea hausnarketaren ondoriozko erabakia den–, baita haren arrazoizkotasunaren inguruan ere –ea bat datorren gure ordenamendua taxutzen duten arau axiologikoekin–.



51. Horretarako, aurreproiektuaren fase hauek aztertzen dira, betiere ikusmolde material batetik: organo sustatzailearen egite-fasea –hasierako testu arauemaileari zentzua ematen dioten arrazoiak eta gogoetak–; parte-hartze fasea –alegia, ea ukitutako pertsoneri eta sektoreei prozesuan parte hartzeko aukera eman zaien, jakiteko zer iritzi eta zer arrazoi dituzten testua onartu edo errefusatzeko–; organo gaituek esku-hartzeko fasea –arauak hala esleituta, testu arauemailea ikuspegi gaituetatik azter dezaten–; eta arauaren eraginpeko eskumenak dituzten administrazioen iritziak biltzeko fasea.
52. Prozedura aztertuz, halaber, egiaztatu daiteke ea aintzat hartu diren, kasuan-kasuan, arauaren bideragarritasuna baldintzatzen duten faktoreak (hau da, ea aztertu den bestelako hautabiderik eta horien ondorioak, eta benetan hautabideok aplikatzeko egon litezkeen aukerak, baita, orobat, horien bidez lortu nahi diren ondorioak erdiesteko gaitasuna ere). Alderdi horretan, azterketak arreta berezia jartzen du eragin ekonomikoan: hau da, ahalegin publiko eta pribatuaren ebaluazioa jaso den, edota balizko emaitzaren gutxieneko zenbatespena adierazi den.
53. Irizpen honen xede den aurreproiektuari erreparatuz, sail sustatzaileak egindako izapidearen memorian adierazita dago Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, ekimena gauzatze aldera, hausnarketa-prozesu bat abiatu zuela 2018. urtean, Euskadin etorkizunean izango den kirol-eredua aztertzeko. Helburua lortze aldera, zenbait lantalde antolatu ziren, indarreko EKL aldatzeko beharra zehazte aldera.
54. Diotenez, 2018. urtean hainbat bilera egin ziren kirol-sektoreko zenbait eragilerekin; bilerak bederatzi talde eta lan-eremutan egituratu ziren, indarreko EKLren egiturarekin bat, funtsean. Memorian jasota dago, halaber, prozesu osoaren berri eman zaiola Kirolaren Euskal Kontseiluari, aholku eta kontsulta organo horren barnean biltzen baitira bai administrazioak bai kirol-arloko hainbat sektore eta kolektibo.
55. Aipatu hausnarketa-prozesutik abiatuta, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak xedapena sortzeko prozesua hastea erabaki zuen, eta agindu baten ezarri zituen horretarako bete beharreko prozedura-jarraibideak.
56. Ekimenari dagokionez, memorian eta zioen azalpenean zenbait eskumen aipatu izanak agerian uzten du kirolaren fenomenoaren bestela jorratuko dela eta protagonismo handiagoa emango zaiola herritarren jarduera fisikoari, bereziki osasunari dagokionez. Ondorioz, zalantzan jarri da ekimena kirolaren gaineko eskumena duen sailetik soilik sortu izana, ekimena ez baita, gutxienez, Osasun Sailarekin partekatatu.



57. Batzordeak, hala ere, gai nagusia «kirola» dela kontuan hartuta, eta etorkizunean beste sail batzuekin ekimen bateratua egiteko beharra edo komenigarritasuna baztertu gabe, egingarri eta koherentetzat jotzen du kirol-gaietan eskumena duen sailaren ekimena. Jarrera hori, esan bezala, hainbat aurrekarirekin bat dator, hala nola ekainaren 21eko 12/2012 Legea, Kiroleko Dopinaren aurkakoa onartzea eragin zuen prozedurarekin, edo indarreko EKL garatu duten erregelamendu-mailako zenbait ararekin.
58. Prozedura abiatuta, aurreproiektuaren memoria teknikoak azalpenak ematen ditu indarreko araua ordezteko arau berri bat onartzeko beharrari buruz, baita arau berriaren helburuei eta testu berrian txertatu diren berritasun nagusiei buruzkoak ere. Helburu horien artean nabarmentzen denez, arau honetan arreta berezia eman zaio jarduera fisikoari, orain arte kirolaren arauketan lehiaketako kirolari soilik eman baitzaio arreta. Era berean, emakumeek kirola egitea sustatzeko neurriak ere ezarri nahi dira, arlo horretan oraindik existitzen den arrakala murrizten saiatze aldera. Hirugarrenik, testu berriak eskola-kirolean sartzen ditu 0 eta 6 urte bitarteko haurrak, hiru lurralde historikoetan eskola-kirolaren programen arteko koordinazioa sendotze aldera. Laugarrenik, federazio-sistema birdimentsionatu nahi da, eta azken helburu gisa jasota dago federazioen antolamendu- eta hauteskunde-eredua sinplifikatzea.
59. Testu berrian jasotako aldaketa formalen berri ere ematen da, besteak beste, honako arlo hauei dagokienez: desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak, arlo paralinpiarra, erreferentzia organiko eta instituzionalak (zeinak formula atemporalen bidez eguneratzen baitira), araudi-igorpenen eguneraketa edo uneko moneta.
60. Memorian aztertu egiten da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak araudiari ekiteko duen eskumena, eta zehaztasun nahikoaz deskribatzen ditu testua bera eta haren berritasunak; hala ere, aitortzen du proiektuan araututako oinarrizko zenbait gaik lehengoari heltzen diotela, hala nola lurraldeen arteko eskumen banaketak edo kirol-administrazioaren zehapen-araubidearekin batera kirol-arloko diziplina-araubidea mantentzeak.
61. Hori guztia jasota dago XOEPLk aurreikusitako terminoetan aldeztatik onartu zen testuan.
62. Hala, onartutako testuaren eragin-ebaluazioa egin du sailak, generoa kontuan hartuta; eta Emakundek berretsi egin du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa betez. Emakunderen txostenean ohartarazi da zenbait gabezia daudela sexuaren arabera banatutako datuei dagokienez –ez dira ebaluazioan eskaini–, eta hobetzeko proposamen zehatz batzuk aurkezten dira, zeinak behar



bezala baloratu baititu sail sustatzaileak, eta, hala behar izan denean, ukatu, behar bezala argudiatuta.

63. Ekimenaren balorazio ekonomikoari dagokionez, memoria ekonomikoa aurreproiektuaren berritasun nagusien ondorioen balorazioan zentratzen da. Printzipioz, ez da aurreikusten berritasun horien ondorioz langile taldea handitzerik; hortaz, nahikoa izango da aurretik dauden giza baliabideak eta baliabide materialak berrantolatzea. Hain zuzen ere, jarduera fisikoa sustatzeko Euskal Agentzia martxan jartzearen ondorioak aztertzen dira dokumentuan – Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaz ari dela ulertzen dugu–, zeinaren langile-beharrak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren egungo langile zuzkiduraren bidez beteko baitira. Beste proposamen batzuek –hala nola federazio-sistemaren berrantolaketa, dimentsioak berritzea, leihatila bakarra sortzea, Kirolaren Euskal Eskola, diziplina- eta zehapen-araubideak– ez dute finantzaketa handitzerik behar, ezta federazioen kasuan ere. Basque Team Fundaziora bideratutako funtsak 200.000 eurotan handitzea aurreikusten da, Aurrekontuen IV. kapituluaren barruan.
64. Hala eta guztiz ere, badira bi gai memoria ekonomikoan sakonago jorratu beharko lirakeenak. Lehenengoa da 0 eta 6 urte bitarteko haurrak eskola-kirolean sartzearen ondorioak aztertzea. Kasu horretan, memoriak dioen gauza bakarra da foru-aldundiei dagokiela horrek ekar dezakeen gastu-igoera bereganatzea, eta zenbatespenik emateko ahaleginik ere ez du egiten. Memoriak informazio gutxi ematen du, bigarrenik, osasun-sistema publikoak pertsoneri kirol-jardueran edo kirol-jardueragatik asistentzia sanitario handiagoa eskaini behar izateari buruz. Kasu horretan, memoria Osasun Sailaren erantzunik eza aipatzera mugatzen da, kostu hori onargarria dela ziurtzat jota.
65. Gogora ekarri behar dugu XOEPLren 10.3 artikulua, zeinaren arabera memoria ekonomikoak ebaluatu egingo baitu legearen aplikazioak administrazio publikoei, partikularrei eta, oro har, ekonomiari eragin diezaiekeen kostua. Horrekin lotuta, memoriak aurretik adierazitako alderdietan sakondu beharko luke, ez baita ezagutzen zer-nolako eragin ekonomikoa izan dezakeen eragindako instituzioetan –foru-aldundiak edota Osakidetza–.
66. Entzunaldi eta parte-hartzeari dagokionez (XOEPLren 8. eta 9. artikulua), aipatu hausnarketa-prozesuaz gain, aurreproiektua Irekia gunean argitaratu zen eta jendaurreko informazioa egin zen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariaren Ebazpen bidez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen 2019ko irailaren 13an.
67. Espedientean ez dago jasota prozeduran parte hartzeko banakako gonbidapenik egin zenik, baina eman ematen da jasotako alegazioei eta oharrei buruzko



informazioa, baita parte hartu duten pertsona eta erakundeei emandako erantzunari buruzkoa ere.

68. Eremu publikoari dagokionez, jasota dago Administrazio Orokorreko sail hauek oharrak aurkeztu zituztela aurreproiektua zela-eta:
- a) Segurtasun Saila, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren bitartez.
 - b) Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren bitartez.
 - c) Hezkuntza Saila, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren zein Hezkuntza Sailburuordetzaren bitartez.
 - d) Osasun Saila, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren bitartez.
69. Foru-eremutik parte hartu dute alegazioak eginez Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, eta tokiko eremuan Eudelek.
70. Federazio-eremuan zenbait alegazio aurkeztu dituzte honako erakunde hauek:
- a) Euskal Kirol Federazioen Batasuna.
 - b) Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarte (ASFEDEBI).
 - c) Euskadiko Euskal Pilota Federazioa.
 - d) Euskadiko Halterofilia Federazioa.
 - e) Euskadiko Futbol Federakundea.
 - f) Javier Mendoza Alonso jauna, Euskal Herriko Ur-azpiko Jardueren Federazioaren izenean, dirudienez.
 - g) Euskadiko Mahai Tennis Federazioa.
 - h) Euskadiko Atletismo Federazioa.
 - i) Euskadiko Kirol Egokituen Federazioa.
 - j) Gipuzkoako Saskibalo Federazioa.
 - k) Euskal Boxeo Federazioa.



71. Elkargoen eremuari dagokionez, alegazioak aurkeztu dituzte Bizkaiko Abokatuen Elkargoak, Euskadiko Podologoek Elkargo Ofizialak eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak.
72. Honako hauen alegazioak ere jaso dira: Euskadiko Erizaintza Sindikatua (SATSE), Unicef, Deportivo Alavés SAD kirol-sozietatea, Ibar Ezkerra Ikastola Koop. Elkartea ikastetxea, GEHITU elkartea eta zenbait partikular, idazkian jaso gabe horiek erakunde edo elkarteren bati atxikita dauden ala ez. Horiek guztiek ere, Irekia gunean jasotako oharrek bezala, dagokien erantzuna jaso dute.
73. Azkenik, parte-hartzeari buruzko apartatua barne hartu behar dugu Kirolaren Euskal Kontseiluaren esku-hartzea, zeina Administrazio publikoen aholku, kontsulta, jarraipen eta eztabaida sektorialerako organo gorena baita Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari eragiten dioten gaietan. Idazkariaren ziurtagiri bidez egiaztatu denez, «Jarduera fisikoaren eta Kirolaren Lege-aurreproiektuari buruzko informazioari» dagokionez, kontseiluak erabaki zuen kideei ezagutaraztea araua egiteko prozedura formalki hasi baino lehen martxan jarritako hausnarketa-prozesua. Nabarmentzekoa da jendaurreko informazio-aldian egindako ekarpenei lotuta emandako datua: 370 ekarpen jaso ziren, 270 alegazio eta 100 hausnarketa; horietatik 141 onartu eta txertatu dira testuan, modu batean edo bestean.
74. Horrek guztiak aukera ematen du egiaztatzeko prozedura behar bezala zabaldu zaiela pertsona eta erakunde interesdunei eta aurreproiektuaren eraginpean egon daitezkeenei; era berean, aukera ematen du egiaztatzeko alegazio eta ohar horiek aztertu egin direla eta, horien ondorioz, hainbat aldaketa egin direla aurreproiektuan. Organo sustatzaileak onartu ez dituen alegazioen kasuan, azalpena eman da.
75. Nahitaezko txostenek dagokienez, Emakunderen txostenaz gain, honako txosten hauek ere sartu dira:
 - a) Sailaren aholkularitza juridikoaren txostena (XOEPLren 7.3 artikuluan aurreikusitakoa), zeinak ondoz ondoko hainbat epigrafetan biltzen baititu aurreproiektuaren aurrekariak, eskumenak eta edukiaren inguruko azterketa, baita horri buruzko zenbait ohar ere, testua hobetu eta egokitze aldera.
 - b) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (DACIMA) txostena.
 - c) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena (26/2019 txostena).



- d) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena (53/2019 txostena, abenduaren 26koa).
 - e) Tokiko Gobernuen Batzordearen (TGB) txostena.
 - f) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena.
 - g) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostena.
76. Aipatu txostenetan jasotako ohar eta alegazioei ere banakako balorazioa egin zaie; horren ondorioz, zenbait aldaketa egin dira aurreproiektuaren testuan, eta onartu ez diren eragozpenen gaineko azalpenak eman ditu organo sustatzaileak, zehaztasun handiagoz edo txikiagoz.
77. Txosten horien guztien artean arreta berezia eman behar diogu TGBk egindakoari; izan ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (ETEL) prozedura espezifiko ezartzen du organo horrek testuari dagokion eragozpenik aurkezten duenerako (baldin eta eragozpenek tokiko eskumenei eragiten badiete).
78. TGBren txostenak ondorioztatu du aurreproiektuak mugatu edo urratu egiten dituela toki-erakundeen toki-autonomia eta nahikotasun finantzarioaren printzipioa; ondorioz, ETELen 90. artikulua 2. eta 3. apartatueta xedatutakoari heltzen dio.
79. Aipatu apartatuak betetze aldera, bitariko batzorderako deia egin zuten, ETELen 90.3 artikulua aurreikusi legez. Bileran hartako aktan jasota dagoenez, gai jakin batzuetan adostasuna lortu arren, alderdiak ez zetozen bat udalerrien finantza-nahikotasuna ETELen 18.3 artikuluan aurreikusitako baldintzetan bermatzeko eranskin espezifiko baten beharrari zegokionez. Organo sustatzailearen arabera, udalerriek ez zaie eskumen berririk esleitzen; hala, memoria espezifiko txertatu du prozeduran, non zehaztuta baitaude bitariko batzordean adostutako alderdien ondorioz aurreproiektuan txertatu diren aldaketak.
80. Gure ustean ere, aurreproiektuan ez dira aldatu edota areagotu egun udalerriek esleitutako eskumenak, eta, ondorioz, ez da finantzaketari buruzko eranskinik behar. ETELen lehenengo xedapen iragankorrak abiapuntua ezartzen du horrelako egoerarako: idazketa nahasi samarra bada ere («... bermatuko da»), uste da indarreko legeriak indarrean jartzen den datan esleitzen dizkien eskumenei badutela beren finantzaketa, udalerrien berezko eskumenei analisiari eta haren finantzaketari kalterik eragin gabe (xedapen iragankor honen 3. paragrafoan jasota dago). Ondorio hori sendotzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak «Euskal Autonomia Erkidegoaren maila instituzionalen berezko eskumenei eta finantzaketaren analisi orokorra» dokumentua aipatzen du, Finantzen Euskal



Kontseiluak 2018ko ekainean egindakoa, lehenengo xedapen iragankorraren 3. paragrafoan aurreikusitako agindua betetze aldera. Txostenean euskararen sustapenari eta gizarte-zerbitzuei dagozkien gaien gaineko eskumenen finantzaketa kontuan hartzea soilik proposatu zen, eta ondorioztatu zen kirol-arloan –orain arte guztientzako kirola izendatzen zena– esleitutako eskumenek egun nahikoa finantzaketa dutela. Hala eta guztiz ere, espedientean jasota daude Tokiko Gobernuen Batzordearen desadostasuna eta jarrera, hala badagokio, Legebiltzarrean izapidetzeko aldiari baloratu ahal izateko.

81. Egiteko prozesu osoaren ondorioz, izapidetzeari buruzko memoria luzea barne hartu da; bertan bildu dira, memorian aurkeztutako zenbait gaitan sakondu ondoren, prozesuan parte hartu duten alderdi guztien alegazioak, oharrak eta hausnarketak, baita sail sustatzaileak ekarpen horietako bakoitzari emandako erantzunak ere.
82. Adierazitako guztiagatik, betetzat jo behar dugu XOEPLn aurreikusitako prozedura.

III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

83. Irizpenaren mende jarritako aurreproiektuaren helburua da araudi bat ordezte, zeinak, zioen azalpenean adierazienez, Euskadiko kirol-sistemako eragile publiko eta pribatuak asko gogobetetzen baititu. Hori dela eta, diotenez, indarreko EKLren oinarrietan funtsatuta egituratzen da.
84. Aurreproiektuaren memoriak araudi berri honen helburu gisa aurkezten ditu honako hauek:
 - a) Esparru juridiko berriak ez du bakarrik lehiaketako kirola jorratzen; arreta berezia ematen dio jarduera fisikoaren sustapenari,
 - b) eta emakumeek kirola egitea sustatzeko neurriak ezartzen ditu.
 - c) Eskola-kirolak barne hartzen du 0 eta 6 urte bitarteko haurren kolektiboa, eta eskola-kirolaren programen arteko harmonizazioa areagotzen da hiru lurralde historikoetan.
 - d) Federazio-sistema birdimentsionatu da, eta presentzia jakin bat lortu duten lurraldeko federazioei soilik eutsi zaie, dela haien garrantziarengatik, dela federazio-lizentzien kopuruagatik.
 - e) Federazioen antolamendu- eta hauteskunde-eredua sinplifikatzen da, kirol-federazioen batzar orokorrak estamentu bakarrean oinarrituta: kirol-klubak eta -elkartek.



- f) Arauaren IV. tituluan zenbait manu txertatu dira, jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan gobernantza ona bermatze aldera.
85. Helburu horiekin batera, hainbat aldaketa planteatu dira eduki formalean; honako hauek, besteak beste:
- a) Indarreko EKLn dauden zenbait erreferentzia zuzendu dira, araudi berritik hizkera sexista ezabatzeko.
 - b) Desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen erreferentzia egokiak txertatzeko ahalegina egin da.
 - c) Zehapen ekonomikoak azaltzeko moneta egokitu da.
 - d) Erreferentzia organikoak zuzendu dira, eta formula atemporalak erabiltzeko ahalegina egin da, etorkizunean EAEko administrazioan izan litezkeen berregituraketek eragin ez diezaieten.
 - e) Egun indargabetuta dauden arauetarako igorpenak eguneratu dira.
 - f) EKLn etengabe –eta, tarteka, oker– egiten zaio erreferentzia Eusko Jaurlaritzari; hala, aurreproiektuan bereizi egin dira bi kasu mota: erreferentzia gisa Eusko Jaurlaritza egoki jaso dutenak, eta erreferentzia gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa izan beharko luketenak. Gauza bera gertatzen da indarrean dagoen EKLn udalei egiten zaizkien erreferentzietan; aurreproiektuan bereizi egin dira gobernu-organoa (udala) eta lurralde-erakundea (udalerrria).
86. Iragarritako planteamendu berria gauzatzeko, aurreproiektuak, lehiaketako kirola –eta, nahi izanez gero, kirol ludikoa– arautzeaz gain, arreta handiagoz jorratzen du jarduera fisikoaren arauketa, kirolek harago doan kontzeptua delakoan. Kontzeptuak (Legearen 1. artikulua 2. paragrafoan jasota) lotura estua dauka pertsonen osasunarekin; hori dela eta, Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako kontzeptua bere egin du: muskulu eskeletikoek egiten duten eta energia gastua dakarren gorputz-mugimendu oro hartzen da jarduera fisikotzat.
87. Hala eta guztiz ere, eskumenen analisisian aurreratu dugunez, osasunarekin hertsiki lotuta egoteak ez du oztopatzen araudiari kirol-arloko eskumenetan oinarrituta heltzeko aukera.
88. Egia esan, ez da planteamendu erabat berria, nahikoa kontinuitate baizik; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-arloko legeetan begiztatutako bidean aurrera besterik ez du egiten.



89. Euskadiko 1998ko legeak «Kultura fisikoa eta kirola» jasotzen zuen, eta zioen azalpenean naturaltasunez lotzen ziren jarduera fisikoaren eta kirolaren kontzeptuak, araudiaren xede nagusia lehiaketako kirol federatua izan arren. Indarreko EKLren zioen azalpenean ere jasota dago kirola eta bere «adierazpen guztiak» antolatzeke beharra, eta jorratu egiten dira osasunarekin edota hezkuntza integralarekin lotura duten zenbait alderdi –adib., eskola edo unibertsitateko kirola, edota kirolarien osasunaren babesa–, «guztientzako kirola» leloaren esanahia ahaztu gabe.
90. Hortaz, araudiaren eraginpeko eremuek –bereziki osasun-arloak, jarduera fisikoaren dagokionez– etorkizunean jarduera fisikoa era bateratuan arautzeko aukera baztertu gabe, arrazoizkoa da pentsatzea titulu nagusi izaten jarraituko duela –haren bitartez ekiten baitzaio arauketari– EAEEn 10.36 artikulua, kirolari buruzkoak.
91. Baina, eskumenen analisisian ohartarazi dugunez, titulu nagusi hori ez da arauaren eduki zabala garatzeko aukera ematen duen bakarra. Osasunarekiko lotura naturalaz gain, aurreproiektuan jasota daude beste hainbat sektoretan eragina duten manuak; hori dela eta, komenigarria litzateke arauaren zioen azalpenean behintzat horien eskumen-arloko babesa jasotzea, aurreproiektuaren memoriak berak jasotzen dituen baldintzetan.
92. Aurreproiektuaren azalpenari jarraikiz, organo sustatzaileak balora lezake zer neurritan izan daitekeen egokia azalpenean aipatzea 2030 Agenda, NBEren Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25eko Ebazpen bidez onartutakoa.
93. Hain zuzen ere, 2030 Agendari buruzko Adierazpenaren 37. puntuan jasota dago garapen jasangarriaren bideratzailea dela kirola, hitzez hitz jasota honako hau: *«Badakigu kirolak gero eta eragin handiagoa duela garapena eta bakea errealitate egiteko, tolerantzia eta errespetua sustatuz, eta emakumeen eta gazteen, pertsona eta komunitateen ahalduntzea ere babesten duela, bai eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte[inklusioaren] arloko helburuak ere».*
94. Bestalde, iragarritako berritasunetik harago, eta jarduera fisikoari protagonismo eta garrantzi handiagoa emateak dakarren berritasunaz gain, aurreproiektuaren abiapuntua da indarreko EKL, eta haren artikuluetako asko erreproduzitzen ditu.
95. Artikuluen analisisian ikusiko denez, zenbait alderdi berrikusi edo partzialki alda daitezke, nahiz eta araudi berriaren bidez lortu nahi diren helburu espezifikoaren artean egon ez. Halaxe gertatu da alderdi formalekin ere, hala nola genero-hizkerarekin edota izendapen organikoekin. Hala eta guztiz ere, artikuluen analisiak aurrera egiten duen neurrian azalduz joango gara hori guztia, arauaren egiturari erreparatuta.



96. Eta, artikuluen analisisian aurreproiektuaren aukera organikoen gaineko oharrak egingo badira ere, Batzordeak ohartarazi nahi du aurreproiektuak antolamendu gaitetan duen esku-hartzea egituratzea, oro har, Jaurlaritzari dagokiola.
97. Esku-hartzea biziagoa zen hasieran, eta nabarmen murriztu da egiteko prozesuan; baina «Kirolaren administrazioaren» antolaketan parte hartzeko asmoak nagusi izaten jarraitzen du. Helburu hori lortze aldera, bi plano bereizi behar direla uste dugu. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-administrazioaren maila ezberdinen arteko funtzio eta eskumenen banaketa, non legearen rola ezinbestekoa eta ukaezina baita. Bestetik, antolamenduari lotutako zenbait erabaki ageri dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan. Horietan, legearen esku-hartzea ez da beharrezkoa, are gehiago, kaltegarria ere izan liteke; izan ere, lege-mailako arau baten bidez, nabarmen eragiten du egiturari buruzko dekretuetan jasota dagoen antolamenduan, eta azken horietan hedatu ohi da gobernuari autoantolatzekeo aitortzen zaion gaitasuna.
98. Esan bezala, esku-hartzea nabarmen murriztu da, aurreproiektuaren lehenengo bertsioetan etengabe aipatzen baitzen jarduera fisikoaren eta kirolaren gaineko eskumena duen zuzendaritza. Hain zuzen ere, bira murriztu dira zuzendaritzamaile bati egindako erreferentziak (38.3 eta 52. artikulua), eta horiek ere erraz saihestu litezke; hala eta guztiz ere, esku-hartze maila handia da administrazioaren antolamenduan, besteak beste, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziari edota Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolari dagokienez.
99. Horien jarraipena errazte aldera, aurreproiektuaren egitura oinarrituta aztertuko dira alderdi guztiak.

I. titulua: - Xedapen orokorrak

100. Titulu honek eutsi egiten dio, funtsean, indarreko EKLri, hala edukiari nola formari dagokienez.
101. **1. artikuluan** definitu eta bereizi egiten ditu kirola eta jarduera fisikoa, nazioarteko irizpideak oinarri hartuta. 4. paragrafoan, arauaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da *e-sportak* edo joko elektronikoak eta antzeko jarduerak arautzea; nolana ere, jarduera horiek beste arau batean arautu ahal izango dira, erakunde antolatzaileen, erakunde horietan parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoen zein hirugarren alderdien eskubide eta interes legitimoak behar bezala babestu ahal izan daitezten.
102. *E-sportak* berariaz arauaren aplikazio-eremutik kanpo uztea egokia da; izan ere, egiazko kirol-lehiaketak era birtualean birsortzean oinarritzen badira ere, arlo



horretan egiten den jarduera nekez sar daiteke kirolari eta jarduera fisikoari dagokionez ezarri diren definizioetan (1. artikulua 2. eta 3. paragrafoak). Hala eta guztiz ere, gai bien arteko bereizketa eginda, ez dauka zentzurik arau honetan iragartzeak etorkizunean eremu berri hori arautu egingo dela, araudiaren xedearekin loturarik ez duelako; eta are zentzu gutxiago dauka lehiaketa mota berri horien etorkizuneko araudi baten edukia aurreratu edo xedatzen saiatzeak. Hori horrela, 4. paragrafoaren azken tartekia ezabatzea gomendatzen dugu.

103. Aurreproiektuaren **2. artikuluan** printzipio gidariak jasota daude, eta 3. paragrafoan 37. apartatu biltzen dira. Hau da jarraitutasun-irizpidea nagusitu den kasuetako bat; EKLren 2. artikulua antzeko eskema ezarri da honetan ere, edukia hobeto aprobetxa zitekeen arren.
104. Printzipioz, printzipio gidarizat har ditzakegu botere publikoen jarduketa taxutzen duten horiek, kasu honetan, kirolari dagokionez. Printzipio horiek arauaren xedea ulertzeko balio dute, kohesioa ematen diote eta berau interpretatzen laguntzen dute, izan litezkeen hutsuneen edota indarrean jartzen den unean aurreikusi gabe egon litezkeen egoera berrien aurrean. Hori dela eta, balio oinarritzko eta erkideei erreferentzia egin beharko litzaieke, printzipio gidari izatera iristen ez diren –eta funtzio hori ez duten– helburu zehatzik edo jarduketa-irizpiderik barne hartu gabe.
105. Xehetasunetan sartu gabe, Batzordeak uste du apartatua berrikusi egin beharko litzatekeela, printzipio gidari gisa kalifikatu behar diren alderdiak ateratzeko eta, nahi bada, gainerako egoerak arauaren bidez lortu nahi diren helburu zehatzagoak ezarriko dituen apartatu batean biltzeko.

II. titulua - Administrazio-antolamendua

106. II. tituluak Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru lurralde-maileri dagozkien eskumenak ezartzen ditu. Horrekin lotuta, aurreproiektuak ildo kontinuista bat planteatzen du, EKLn ezarritako eskumen-banaketari eusten baitio, salbuespen bakarrarekin: kirolarekin batera, jarduera fisikoaren kontzeptua jasotzen da berariaz.
107. **3. artikuluan** erakunde erkide edo komunen eskumenak jasota daude, eta, eskumen errepikatuak kentzeaz gainera, diziplinen kalifikazioaren aipua jasota dago berariaz.
108. Aipatu aldaketez gain, artikulua honetan erakunde komunei esleitzen zaizkien eskumenek ez dute aldaketa adierazgarririk izan. Hala eta guztiz ere, balora liteke artikuluetan jasota dauden bi berariazko eskumen barne hartzeko aukera. Alde batetik, 3.2 artikulua c) apartatuan hau sartzeko aukera: goi-mailako



kirolerako ekipamenduen plana egitea, 98. artikuluan aurreikusitakoa. Bestetik, hala badagokio, 104. artikulua eskaintzen dituen aukerak jasotzea, kirol-ekipamenduen inguruko politika publikoei buruzkoak.

109. Artikulu honi dagokionez, halere, komeni da ohar formala egitea, 1. paragrafoari eta 2. paragrafoko w) apartatuari dagokienez; izan ere, kasu bietan, arauak behin eta berriro egiten dio erreferentzia LHLren 6.1 artikuluan aurreikusitako itxiera-klausulari. 1. paragrafoan klausula hori jasota dagoenez, uste dugu ezabatu egin beharko litzatekeela 3.2 artikulua w) apartatua.
110. **6. artikulua** Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluari buruzkoa da, organo horrek ordeztuko baitu egungo Kirolaren Euskal Kontseilua. Indarreko EKLren lege-erregelamendu harreman bera aurreikusten da aurreproiektuan, erregelamenduaren arauketara igortzen baita izendapen-sistemari, jarduteko araubideari eta funtzioei dagokien guztia.
111. Esan bezala, eutsi egin zaio indarreko EKLn xedatutakoari, baina horrek ez du esan nahi hobetu ezin denik. Hortaz, aurreproiektua aukera ona dela azpimarratu beharrean gaude. Kasu honetan, kontseiluaren funtzioei dagokienez, igorpen hau «zuria» izatetik hurbil dago, nahiz eta halaxe kalifikatu ezin den, kirolari lotutako xedapen orokorreko proiektuetan kontseiluaren nahitaezko parte-hartze bat behintzat ezartzen duelako. Izan ere, artikulua zentzu osoa izateko, azaroaren 7ko 207/2000 Dekretuak, Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duenak, xedatutakoari erreparatu behar zaio.
112. Horrekin lotuta, 6. artikulua 4. paragrafoa ulertzea ere zaila da, erreferentzia egiten baitie, alde batetik, Legean aurreikusita dauden zenbait «azpibatzeri», zeintzuek, seguru asko, aurreproiektuaren 77. eta 111. artikuluetan xedatutako azpikomiteekin bat etorri behar baitute, eta, bestetik, «erakundearteko koordinazio mahai» bati, zeinak arduratu behar baitu «gai beraren eraginpean hartutako administrazio publikoen jarduketan koordinazioa bermatzeaz, emaitza komun bat eraginkortasunez eta efizientziaz hutsunerik eta bikoiztasunik gabe lortzeko helburuarekin». Badirudi administrazioen arteko koordinazio eta lankidetzarako organo bati buruz ari dela, kontseiluaren barnean bertan, baina ez dira haren garrantzia eta funtzioak argitzen.
113. 1. paragrafoan kontseiluaren definizioa eta xedapen orokorrak egiteko prozesuan nahitaezko parte-hartzea aipatzen badira ere, eskema horretatik atentziorik handiena ematen duena da, Batzorde honen arabera, aurreproiektuak ez dituela funtzioen nondik norakoak azaltzen, eta ez dagoela hartarako ageriko justifikaziorik; hortaz, antolamenduari –azpibatzerdeak eta koordinazio-mahaia– dagozkion ondorengo zirriborroek zentzua galtzen dute, testuingururik gabe geratzen baitira.



114. Hori horrela, aurreproiektuak kontseilu honen definizioan gehiago sakondu behar duela uste dugu; horretarako, haren funtsezko elementuak eta horiei dagozkien funtzioak behintzat ezarri behar dira, baita artikuluetan jasotzen diren azpibatzerdeekin edo azpikomiteekin izan behar duten harreman eta lotura ere. Azken gai horri dagokionez, garrantzitsua da argi eta garbi uztea azpibatzerdeak aipatzean azpikomiteei egiten ote zaien erreferentzia; izan ere, horrek ondorioak izango ditu azken horien osieran, azkenean kontseiluaren parte baldin badira (eta hala dirudi), argitu beharko baita horietan barne har daitezkeen ala ez kontseiluaren beraren parte diren kideak.
115. **7. artikulua**, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziari buruzkoak, aztertu eta kontuan hartu beharreko zenbait gai barne hartzen ditu. Horiek argitzeko, aurreproiektuaren planteamenduak egite-prozesuan izan duen bilakaerari erreparatu behar zaio.
116. Hasierako bertsioetan, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa ageri zen aurreproiektuan, kirol-gaietako sail eskudunari atxikita. KEBek balorazio negatiboa egin ondoren, agentzia zerbitzu gisa definitzeko hautua egin da eta, ondorioz, laugarren xedapen iragankorra ere sartu da, zeinaren arabera araua indarrean jartzeak aldatu egingo bailuke egungo Jarduera Fisikoaren Zerbitzuaren izena, Jarduera Fisikoaren Euskal Agentzia izendatuta.
117. Aurreproiektuak proposatutakoaren emaitza da administrazio-zerbitzu bati esleitzea hasiera batean zuzenbide pribatuko erakunde publikoari esleitutako funtzioak, eta, Batzordearen arabera, oker nabarmena izango litzateke, hainbat arrazoi direla-eta.
118. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta zerbitzuaren arteko aldeak agerikoak dira. Lehenik eta behin, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena (EONAL), aintzat hartuta, erakunde publikoak nortasun juridiko propioa dauka, eta zerbitzua, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren parte da, azken horrek baitu nortasun juridiko bakarra.
119. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak sortzeko lege-mailako arau bat behar da (EONALen 17. artikulua), eta horrek justifikatzen zuen hasiera batean aurreproiektuan barne hartu izana. Aukera hori baztertuta, eta Agentziaren funtzioak Administrazio Orokorraren administrazio-zerbitzu batean txertatzea erabaki ondoren, ez da egokia legean arautzea.
120. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, administrazio-organoak Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean konfiguratuta geratu dira, azken



maila zuzendaritzari dagokiola (31.1 artikulua). Azken horrek antolaketa-unitate baten zuzendaritza hartzen du bere gain, sailaren egitura organikoa ezartzen duen dekretuak xedatzen duenaren arabera. Printzipioz, lege-mailako arau batek administrazio-organo berriak ezar ditzake, eta hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak izango dituzten funtzioak esleitzen diezazkie (40/2015 Legea, urriaren 1eko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena - 5.1 artikulua), baina haren beharra edo egokitasuna behar beste mediatu eta justifikatu behar da, batez ere Administrazio Orokorrean ezarritako hurrenkera hierarkikoan eragiten badu (kasu honetan bezala). Edonola ere, ez da argi geratu egituraren horrelako aldaketarik egitea ote den asmoa.

121. Adibide adierazgarri batzuk jartzearen, zaila da ulertzea zergatik aitortu nahi dion sail sustatzaileak zerbitzu bati aurrekontu orokorretan jarduera fisikoa sustatzeko baliabide ekonomikoen eta materialen kudeaketa [f] apartatua] edota jasotzen dituen funts publiko edo pribatuen transferentzien kudeaketa [g] apartatua]. Hori bezain ezohikoa da zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzea jarduera fisikoaren sustapenari lotutako kanpoko proiektuetan [l] apartatua] edota gizarte-eragileekiko solaskidetzari eustea, Jaurlaritzaren Legean Administrazio Orokorreko sailburu eta goi-kargudunei dagokienez xedatuta dagoena alde batera utzita.
122. Azken finean, dokumentua egiteko prozesuan izan den aldaketa sakona ikusita – nortasun juridiko propioa duen erakunde instrumental izatetik administrazio-zerbitzu izatera pasa da–, Batzorde honen ustez, behar-beharrezkoa da gai honen gaineko hausnarketa sakona egitea eta administrazio-zerbitzu bati esleitzen zaizkion funtzioen nondik norakoak aztertzea. Edonola ere, horri lotuta, 83. artikuluaaren analisira jotzen dugu, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolari buruzkoa bera.
123. Basque Team Fundazioari dagokionez, Batzordeak ez du oztopo juridikorik ikusten arauak 8. artikuluan aurreikusitako funtzioak esleitzen diezazkion. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, oro har eta EONALen 23.ter artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio bat sortzeko, fusionatzeko edo deuseztatzeko, edota haren estatutuak aldatzeko, nahikoa dela gobernu-kontseiluak dekretu bidez baimentzea. Fundazioa etorkizuneko legean barne hartzeak eragin zuzena izango luke Jaurlaritzak fundazioa azkentzeko duen gaitasunean eta, hortaz, artikulua honetan fundazioari esleitzen zaizkion funtzioak garatzeko modurik onenari buruz erabakitzeko gaitasunean.
124. Fundazioa indarrean dagoenez, haren funtzioak eta kirol-arloan eskumena duen sailarekiko harremana bere horretan mantentzeko aukera bat izan daiteke xedapen gehigarri batean jarraitutasun hori jasotzea, Jaurlaritzaren esku utzita



gerora fundazioaren irautearen edo haren funtzioen aldaketaren gainean erabakitze eskumena.

III. titulua - Jarduera fisikoaren sustapena

125. III. titulua da aurreproiektuaren berritasun adierazgarrienetako bat. Bertan jasota dago araudi berriaren oinarrizko helburuetako bat: jarduera fisikoa barne hartzea eta sustatzea, bizi-ohitura osasungarriak sortzeko eta, horrela, pertsonen osasunean eragin positiboa izateko.
126. Jarduera fisikoaren dimentsio berria gorabehera, arauak ez du manu edo betebeharrak espezifikorik txertatzen; aitzitik, dei egiten die administrazio publikoei, nork bere eskumen eta aukeren arabera, ikuspegi hau sustatzeko neurriak har ditzaten, hala eragin-esparru osoan nola eskumen-eremu bakoitzean (hezkuntza, garraioak, errepideak eta bide-segurtasuna, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, lan-arloa, osasun-arloa edo sektore publikoko kontratuen arloa).
127. Hala, aurreproiektuan administrazioei eta, kasu batzuetan, kirol-federazioei (11.3 artikulua) zuzendutako gonbita aurreikusita dago, pertsonen jarduera fisiko osasungarria bultzatzeko neurriak har ditzaten. Horretarako, aipamen berezia egiten zaie egun jarduera horren garapenean inplikazio txikiagoa duten taldeei, edo kalteberagoei eta integrazio handiagoa behar dutenei.
128. 12. artikuluan, alabaina, hezkuntza-arloko neurriei buruzkoa baita, jasota daude zenbait neurri espezifiko, arreta berezia merezi dutenak.
129. Alde batetik, 1. paragrafoan ikastetxe publiko zein pribatuei zuzendutako agindua ageri da, jarduera fisikoa ikasleen ohitura bihurtzeko neurri egokiak har ditzaten. Manu programatiko edo finalista horrek betebeharrak zehatza ezartzen die ikastetxe guztiei: «jarduera fisikoari eta eskola-kirolari lotutako programa» bat izan beharko dute, ikastetxe bakoitzak urtero onartzen duen planean jasota.
130. 2. paragrafoan, hezkuntzari dagokionez, agindu «inbaditzaileagoa» jasotzen da. Alde batetik, agindua ematen zaio Hezkuntza Administrazioari, gorputz-hezkuntzako irakasgaiaren ordu kopurua gehitzeko eta, horrela, irakasgai hori astean hiru ordutan emateko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan. Bestetik, bigarren agindu bat ematen zaio Hezkuntza Administrazioari, beste etapa batzuetan gorputz-hezkuntzako irakasgaiaren ordu kopuru nahikoa bermatzeko, salbuespena direla Lanbide Heziketako araubide orokorrari dagozkion prestakuntza-zikloak.
131. Bi agindu horiek zalantzan jarri ditu Hezkuntza Sailburuordetzak, batik batik unibertsitatekoak ez diren eta oinarrizko irakaskuntza eskaintzen duten ikastegiei dagokienez. Sailburuordetzaren aburuz, 2. paragrafoan ezarritakoak kontra



egiten dio maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) xedatu duenari. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Legeak (LOMCE) aldatu egin du lege hori, eta 2. bis.2 artikuluan xedatu du honako hau: *«Hezkuntza-administrazioak dira Estatuko Administrazio Orokorrean eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioetan hezkuntzaren alorrean eskudunak diren organoak»*.

132. Xedapen hori oinarri hartuta, Hezkuntza Sailburuordetzaren ustez, LOEren 2. bis.2 artikuluan esleitutako eskumenari erreparatuta, Eusko Jauriaritzak abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua onartu zuen, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Oinarrizko Hezkuntzaren edukia ezartzen du dekretu horrek, baita ikastetxe guztietan eremu edo irakasgai bakoitzari eskaini beharreko gutxieneko eta erreferentziako ordu kopurua ere.
133. Aurreproiektuaren 12. artikulua 3. apartatuan xedatutakoari dagokionez, Euskal eskola publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 17.2 artikuluaekin talka egin dezakeela planteatu da; izan ere, ikastetxe bakoitzeko antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamenduari esleitzen dio, haren autonomiaren barnean, eskola-komunitateko kideen eskubide eta betebeharrak zehaztea.
134. Batzordearen aburuz, argudio horiek ezin zaizkio gailendu Eusko Legebiltzarraren ahalmenari, hots, legeak libreki emateari EKn eta EAEEen ezarritako eskumen-esparruaren barnean. LOEn xedatutakoari dagokionez, erkidegoko araua (berdin dio lege edo erregelamendu den) ez zaio hierarkia-harremanez lotzen oinarrizko aruari, baizik eta eskumen-printzipioaren bitartez, eta autonomia-erkidegoari aukera ematen dio aukera politiko propioak sartzeko, oinarrizko araua mugatatz hartuta (duen gutxieneko eduki erkideari dagokionez); horrenbestez, arau autonomikoak osatu egiten du ordenamendu juridikoa –zeinaren eraketan parte hartzen baitute gaiari buruzko araugintza-boterea duten lurralde-erakundeek-, konstituzio-multzoaren aplikazioaren poderioz.
135. Baina horrek ez du esan nahi hezkuntza-arloko esku-hartze hori behar bezala neurtuta dagoenik.
136. Hezkuntza Sailburuordetzak adierazi duenez kontraesana egon daitekeela aurreproiektuan proposatutakoaren eta hezkuntza-arloko egungo araudian xedatutakoaren artean, sail sustatzaileak erantzun du arauen arteko lehian, azken buruan, *«lex posterior derogat priori»* irizpidea ezarriko dela. Batzorde honen aburuz, ordea, soluzio hori arauen lehia errealitatea denean aplikatu behar da, baina ez dirudi arrazoizkoena denik araua egiteko prozesu batean murgilduta gaudenean.



137. Hezkuntza-arloan curriculuma zehazteko prozesuaren konplexutasuna onartu behar da lehendabizi. Izan ere, hezkuntza-sistemaren funtsezko alderdiak dira curriculuma definitzea eta antolatzea eta, horrekin lotuta, LOEn estatuko gobernuaren esku uzten da gutxieneko irakaskuntzak osatzen dituzten curriculumaren oinarrizko alderdien helburuak, oinarrizko gaitasunak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak finkatzeko zeregina, eta hezkuntza-administrazioen esku, berriz, irakaskuntza guztien curriculuma ezartzeko zeregina.
138. Prozesuaren azken fase gisa, gure kasuan Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen curriculumak agertzen dira, eta horietan gauzatu beharko litzateke 12. artikulua 2. paragrafoan jasota dagoen agindua.
139. Legeak Jaurlaritzari horrelako helburu bat erreklamatzeko duen eskumenetik harago, aztertu behar da arrazoizkoa ote den horrela sartzea honelako prozesu konplexu batean, jarduera fisikoaren ikuspegitik soilik bada ere.
140. Analisi honetan ohartarazi nahi dugu, alde batetik, ez dela aztertu zer-nolako eragina izango duen neurriak curriculumen arauketan, ezta zer neurritan eragin liezaiokeen aginduak curriculumetan sartzten diren gainerako gaitetan ere. Curriculumean adierazitako irakasgaietan ordu gehiago sartzeko, eskola-orduak areagotu beharko lirateke, edota beste irakasgai bati eskainitako ordu kopurua murriztu; hortaz, uste dugu araua onartu aurretik aztertu eta baloratu beharreko alderdia dela.
141. Bestalde, adierazi beharra dago hausnarketa-prozesuaren akatsa izan dela Euskadiko Eskola Kontseiluaren parte-hartzerik ez jasotzea; izan ere, urriaren 28ko 13/1988 Legeak, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoak, xedatzen du unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren programazio orokorrean inplikaturik dauden sektore sozialen parte-hartzerako organo gorena dela Eskola Kontseilua, baita Eusko Jaurlaritzak proposatu edo eman behar dituen lege-proiektuei, xedapen orokorrei eta erregelamenduei dagokienez kontsulta eta aholkua emateko organo nagusia ere.
142. Batzordeak behin baino gehiagotan azpimarratu du araua egiteko prozedurak berebiziko garrantzia duela bai arauaren egingarritasuna agerian jartzeko, bai ordenamendu juridikoan behar bezala txertatzeko. Kasu honetan, erkidegoko legegileari ukatu gabe 12. artikuluan aurreikusita dauden mezuak ezartzeko eskumena, kezka adierazi nahi dugu hezkuntza-arloari eragiten dion agindu honen aurrean, gaiaren gaineko eskumena duen sailaren irizpidea kontuan hartu ez delako –eta haren kontra egin delako–.
143. Aurreproiektuaren **15. artikuluan**, alde batetik, kirol-txartel bakarra aipatzen da. Arauan, kasu honetan, errealitate sortu berri bat jorratzen da, zeinak, udalerrien



atxikimendu boluntarioaren bitartez planteatuta, behar bezala errespetatzen baitu haien autonomia.

144. Artikulu honen 2. paragrafoa zenbakirik gabeko bi paragrafotan bereizita dago. Horietako lehenengoan jaso legez, ikastetxeetan –zentro publiko zein itunpekoetan– kirolguneak eskola-ordutegitik kanpo erabil daitezzen sustatzeko erabakiak hartu ditu Administrazio Orokorrak. Kasu honetan, Administrazioaren erabakiak sustapenari lotutakoak dira eta, ondorioz, ez dago inolako eragozpenik ikastetxe itunpekoak barne hartzeko.
145. Baina, eskola-kirolaren ondorioetarako, ikastetxe itunpekoak zentro pribatuak dira, jarduera horretan beren ondare propioa erabiltzen dutenak, itunpekoa ez den edozein zentro pribatuk bezala. Horregatik, uste dugu itunpeko ikastetxeak erabakian sartzeak eta gainerako ikastetxe pribatuak kirol-instalazioen erabilera sustatzeko neurrietatik kanpo uzteak ez duela arrazoizko justifikaziorik.
146. Paragrafo horretan bertan, saiakera egiten da instalazioen erabilera eskola-ordutegitik kanpo izan dadin soilik, kontuan hartu gabe (berriro ere), itunpeko ikastetxeen kasuan ondare pribatua dela (salbu eta itunpeko ikastetxeek ondare publikoa duten kasu bakanetan) eta, ondorioz, haren erabilera prestakuntzaren hitzarmen-baldintzei eragiten dien alderdietara soilik mugatu daitekeela. Hori kontuan hartuta, baldintza horietan salbu, ikastetxeak libreki erabili eta ustiatu ditzake instalazioak eskola-ordutegian, eta, ondorioz, 2. paragrafoan jasotako mugaketa ez dago justifikatuta.
147. Azkenik, ikastetxe publikoetako instalazioen erabilerari eta kirolguneen erabilera arautzeko erregelamenduaren garapenari dagokienez, erabilera jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudian aurreikusitakora egokitzeko, gogoan izan behar dugu LOEren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 6. paragrafoak hezkuntza-administrazioei ematen diela haien mendeko ikastetxeak erabiltzeko prozedura ezartzeko eskumena. Xedapen horrek ezartzen du, halaber, erabilera ikastetxe horien jardueren programazioak eragindako premiei soilik egongo dela lotuta.
148. Hala bada, xedapen gehigarri hori aplikatze aldera, Jaurlaritzak 76/2008 Dekretua onartu zuen, maiatzaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden jardueretarako erabiltzeko prozesua arautzen duena. Hala, bai administrazioek eta erakunde publikoek, baita beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere, ikastetxe publikoetako eraikin eta instalazioak erabili ahal izango dituzte ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden jardueretarako, hala nola jarduera kulturaletarako eta kirol-jardueretarako.



149. 15. artikulua azken zatian igorpen bat egiten da, jarduera fisikoa sustatzeko ikuspegian oinarrituta, eta bertan jasota dago instalazioen erabilera jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudiaren arabera egokitzeko beharra. Esan bezala, titulu hau jarduera fisikoaren sustapenean zentratu da. Ikuspegi horretan oinarrituta, hau da, kirol-instalazioak kirola edo jarduera fisikoa egiteko erabiltzen duten pertsonen ikuspegia abiapuntu hartuta, uste dugu nahikoa dela aipatu 76/2008 Dekretuan araututako erregelamendua.
150. Edonola ere, egoera jakin batzuetan, eta inguruabarren arabera (ikusle kopuruaren arabera, esaterako), ikastetxeetako kirol-instalazioen erabilera kontuan izan beharko dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudian jasotako aurreikuspenak. Edozein kasutan, uste dugu erregelamendu-igorpena lekuz kanpo dagoela, kapitulu honetan eta aipatu xedearekin bederen.
151. Titulu honetan barne hartutako gaiei dagokienez planteatutako gainerako neurriak sustapenari lotutakoak dira, baina ez dizkiete betebeharrak zehatzik ezartzen ez administrazio publikoei, ez partikularrei.

IV. titulu - Gobernantza ona jarduera fisikoan eta kirolean

152. Proiektatutako araudiaren beste berritasun bat da aurreproiektuaren IV. titulu.
153. Titulu honetan aurreikusitako gobernantza-eredu berria zenbait arlotan proiektatzen da, honako hauetan, besteak beste: gardentasuna, benetako berdintasuna, kudeaketa efizientea, gizarte-inklusioa, euskararen sustapena eta animalien babesa.
154. Gardentasunari dagokionez, 22. artikulua 1. paragrafoan jasota dago erakundeek beren webgunean argitaratu behar dutela jarduera ekonomikoari, egiturari edo jarduerari buruzko informazioa.
155. Betebeharrak berri horien aplikazio-eremu subjektiboari dagokionez, maniak barne hartzen ditu kirol-federazioak, Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna eta «*kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak finkatzen dituen erakunde guztiak*».
156. Komatxoaren artean jasotako tartekiak interpretazio desberdinak izan ditzake, eta hori ez da batere komenigarria; hala eta guztiz ere, interpretaziorik arrazoizkoenean oinarrituta, uler dezakegu betebeharrak horiek aurreproiektuaren V. tituluarekin, kirol-erakundeei buruzkoarekin, lotura izan behar dutela. Edonola ere, kontu hori argitu beharko litzateke.
157. Sakon aztertu beharko litzateke, halaber, kirol-arloan eskumena duen sailari hain gaikuntza lausoa egin izana. Aurreproiektuak berak pribatutzat jotzen dituen



erakundeei ezartzen zaizkien betebeharren izaera eta helmena ikusita, uste dugu horien eremu subjektiboa –edo berau zehazteko irizpideak bederen– legean bertan zehaztu beharko litzatekeela, esan bezala, aurreproiektuaren hurrengo tituluan aurrez definitutako kirol-erakundeak abiapuntu hartuta.

158. Horrekin lotuta, ez da balizko erregelamendu-lankidetzarik baztertu behar, baina, kasu honetan, ulertzen dugu lankidetzari hori, lehenik, erregelamenduak egiteko ahala duen titularraren eskutik etorri behar dela. Batzorde honek irizpenenetan ohartarazi izan duenez, erregelamendugintzarako jatorrizko ahala duen titularrak garatu behar du legea, hau da, Jaurlaritzak berak –Jaurlaritzaren Legearen 16. artikulua–; eta sailburuek, ordea, lege horren 26.4 artikulua araberak, beren sailari dagozkion gaien gaineko xedapen administratibo orokorrak eman behar dituzte, hau da, printzipioz *ad extra* ondorioz gabe.
159. Ikuspegi formaletik begiratuta, 3. paragrafoan xedatzen da informazioa «dagokion egoitza elektronikoan» argitaratu behar dela; ulertzen dugu, hortaz, 1. paragrafoan izendapen horren bidez aurreikusitako federazioen eta erakundeen webguneaz ari dela. Hori dela eta, eta zalantza besterik eragiten ez duenez, 3. paragrafoan egoitza elektronikoei egiten zaien erreferentzia ezabatu beharko litzateke.
160. **23. artikulua**, «Berdintasuna» izenburua duenak, administrazio publikoei eta botere publikoei, kirol-federazioei eta federazioen batasunei zuzendutako hainbat mezu biltzen ditu; eta zehaztasun txikiagoz biltzen ditu, baita, «kirol-lehiaketak» (4. paragrafoa), «kirol-jarduerak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak» (5. paragrafoa), «kirol-jarduerak antolatzen dituzten gainerako erakundeak» (6. paragrafoa) eta «kirol-erakundeak» (8. eta 9. paragrafoak).
161. Egoera batzuetan, bereizketa hori justifikatuta egon liteke; baina berriro uste dugu era argi eta seguruan identifikatu behar direla mezuen hartzaileak eta, kasu batzuetan, baita mezua edukia bera ere.
162. 4. paragrafoa paradigmaticoa da. Mezuari dagokionez, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioaren errespetua gailentzen da sarrietan, sari ekonomikoak ematen direnean. Horrela, badirudi berdintasuna ezartzen saiatzen dela; baina formulazioak, printzipio horrekiko errespetua aipatuta, ez du aukerarik ematen mezua hain era irmoan interpretatzeko.
163. Mezua konplikatu egiten da, gainera, «berdintasunaren eta ekitatearen printzipioa bete beharko da sarrietan» aipua ezartzen zaienean arauaren aplikazio-eremuan barnebiltzen diren kirol-lehiaketa guztiei. Manuak, horrela planteatuta, zaildu egiten du interpretazioa eta balizko aplikazioa; horregatik, haren planteamendua eta idazketa birpentsatzea proposatzen dugu.



164. Bestela, interesgarria izan daiteke sail proposatzaileak aztertzea martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, aldatzeko egin diren saiakerak, sarietatik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatze aldera. Lehen saiakera izan zen Senatuan 2018ko azaroaren 7an onartutako lege-proposamena, aurreko legegintzaldia bukatu zenean bertan behera geratu zena. Bigarren saiakeran, lege-proposamen berbera aurkeztu zen, eta orduan ere ez zuen arrakastarik izan, talde proposatzaileak erretiratu egin baitzuen legegintzaldi honetan.
165. Hemen azertu dugunari dagokionez, garrantzitsuena da sarietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezartzeko saiakera egin egin dela; baina, gure aburuz, bideragarritasun, argitasun eta antolatzaileen autonomiarekiko errespetu handiagoa zuen proposamenak, eta honako hauetara mugatzen zen: *«Administrazio publikoek edo eurei lotutako edo euren mendeko zuzenbide publikoko erakundeek zati batez edo osorik antolatu, finantzatu, diruz lagundu edo babesten dituzten kirol-lehiaketa profesional eta ez-profesional guztiak».*
166. Testu horretan agerian geratzen da berdintasuna nagusituko dela sarietan, baina finantzaketa publikoa jasotzen duten lehiaketetan soilik.

V. titulua - Kirol-erakundeak

167. Aurreproiektuaren V. titulua zazpi kapitulutan egituratuta dago. Lehenengo lauretan xedapen orokorrak, kirol-klubak, kirol-elkarteak eta kapitaleko kirol-sozietateak jorratzen dira.
168. Lau kapitulu horietan, aurreproiektuak berritasun esanguratsu bakarra aurkezten du. Indarreko EKLn, merkataritza-sozietate izaera hartu nahi duten kirol-erakundeek kirol-sozietate anonimo bat soilik sor dezakete; aurreproiektuak, ordea, beste edozein kapital-sozietateri zabaltzen dio aukera.
169. V. kapitulua kirol-federazioei buruzkoa da. Federazioak kirol-arloko figura bereziak dira, eta horiek gabe ezin da antolamendu-eredua ulertu, bereziki lehia-kirolari dagokionez. Kirolari buruzko hainbat legetan ibilbide luzea egin badu ere, federazioaren figurak eremu grisak ditu oraindik izaerari eta Konstituzioaren 22. artikuluan jasotako elkartzeko eskubidearen eremuari –edo, hobeto esanda, haren aplikazio-esparrutik kanpo egoteari– dagokienez.
170. Aurreproiektuak eutsi egiten die EKLn federazioen inguruan ezarri diren ikuskera eta definizio bereberiei; eta arau horrek, Estatuko Kirolaren Legeak bezalaxe, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 67/1985 Epaian jasotakoa betetzen du.
171. Epaiazen arabera, estatu sozial eta demokratiko batean planteatzen den arazoetako bat da nola zehaztu daitekeen Estatuak noraino antola dezakeen



bizitza sozialaren hainbat sektoretako esku-hartzea legez eraturako elkarte pribatuen arauketaren bidez (zeintzuei esleitzen baitzaie sektore oso bati dagozkion funtzio publiko administratiboan egikaritzea). Hau da, zer neurritan diren bateragarriak legez eraturako elkarte horiek (federazioak) eta elkartzeko eskubidea. Horri erantzuna emateko, Konstituzio Auzitegiak kontuan izan zituen honako hauek:

- a) Bide horren erabilera orokortuak printzipio korporatiboari helduko lieke, zeinak bateraezinak baitira zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batekin. Hala eta guztiz ere, onartzen du salbuespenez erabiltzea, baldin eta kasuz kasu justifikatzen bada helburu publikoak lortzeko behar den neurria dela; edozein kasutan, beharrezkoak diren mugak ezarriko dira, herritarren oinarrizko eskubideak bereganatzea ekar ez dezan, ezta Konstituzioaren kontrako ezein eragin ere.
- b) Konstituzioaren 53.1 artikulua elkartzeko oinarrizko eskubidearen edukiarekiko errespetua ezartzen dio legegileari, eta, horretarako, errespetatu egin behar da askatasun negatiboa –ez elkartzeko askatasuna–, baita askatasun positiboa ere, helburu pribatuarentako elkarteak sortzeko eskubidea, alegia. Konstituzioaren 22.4 artikuluan xedatutakoa ere aplikagarria da kasu honetan; hau da, elkarteak ebazpen judizial arrazoitu bidez soilik desegin edo eten daitezkeela.
- c) Legez eraturako elkarteak muga horien barruan sartuz gero, ez legoke Konstituzioaren 22. artikuluan aurreikusitako elkarten artean, artikulua horrek ez baitu barne hartzen gizarte-bizitzako sektore jakin batean funtzio publiko administratiboak betetzera bideratutako elkarteak eratzeko eskubidea.
- d) Elkarte horien berezitasunaren ondorioz, baliteke legegileak arautzea horien eraketa, eta, adierazitako mugen barruan, egokitzat jotzen dituen betekizunak ezartzea; eta horren arrazoia da 22. artikuluan aitortzen den elkartzeko eskubideak ez duela barne hartzen gizarte-bizitzako sektore jakin batean funtzio publiko administratiboak betetzera bideratutako elkarteak eratzeko eskubidea.

172. Elkarten izaerari buruzko eztabaida amaituta ez badago ere, baieztatu daiteke, aurreratu dugunez, bai indarreko EKL bai hemen aztertzen ari garen aurreproiektua Konstituzio Auzitegiaren doktrinan oinarritzen direla kirol-federazioak honela eratzeko:

- a) Erakunde juridiko pribatuak, ordenamendu juridiko pribatuaren mende daudenak.



- b) Elkarre-oinarriko erakundeak dira, eta kirolaren jarduna, sustapena eta garapena dute erkide, kirol-federazio bakoitzari dagokion kirol-modalitatean.
 - c) Izaera juridiko pribatuaren kalterik gabe, zenbait funtzio publiko administratibo betetzen dituzte; horrelakoetan. administrazio publikoen eragile laguntzaile gisa jarduten dute.
173. Kirol-federazioen berezitasun nagusia azken ezaugarri horri lotuta dago hain zuzen; izan ere, erakunde juridiko pribatuak izaki, legeak funtzio publiko administratibo jakin batzuk betetzeko agintzen die. Eskuduntza horrek justifikatu egiten du Administrazioaren kontrola, hala haren eraketan nola funtzio horien egikaritzean; baina kontrol hori ez zaie ezartzen EKren 22. artikuluan jasota dauden elkarteei.
174. Arlo pribatuaren eta publikoaren arteko mugalde horretan garatzen da federazioen jarduna eta, ondorioz, zalantza eta eztabaida ugari sortu dira doktrinan, jarduketa arautzen duten zenbait araurekin edota funtzioak betetzeko abiatzen diren egintzekin lotuak. Hala eta guztiz ere, esan bezala, EKLn ezartzen den edukian oinarrituta dago aurreproiektua; hori dela eta, irizpen hau aldaketetan zentratuko da, hargatik eragotzi gabe egoki iritzitako oharrak egitea aldatu ez den araudiaren inguruan, baita aurreproiektuak arautzen dituen gainerako gaien inguruan ere.
175. Aurreproiektuak zenbait berritasun iragarri ditu federazioei dagokienez.
176. Horietako lehenaren helburua da federazio-sistema birdimentsionatzea; Euskadin modalitate bakoitzeko federazio bakarra ezarri nahi da (EAEko federazioa), salbu eta lizentzia kopuruaren edo garrantziaren ondorioz lurraldekoak mantentzen badira.
177. Kasu honetan, EKLk aurreikusitako arau-aukeraz bestelako bat dugu; izan ere, kirol federatuaren sistema lurralde-federazioetan eta EAEko federazioetan egituratuta egotetik (lehenengoak bigarrenetan integratuta) Euskal Autonomia Erkidego osoan federazio bakarrean egituratuta egotera pasa da (aurreproiektuaren 33. artikulua), salbu eta kirol-modalitateak antolamendu-egitura finkoa, kirol-garrantzi handia edota lizentzia ugari baditu.
178. Aldaketa justifikatzen duten arrazoiak antolamenduari lotuago daude alderdi ekonomikoarekin baino. Gaur egun, EAEko federazioen hauteskunde-prozesuak lurralde-federazioen hauteskunde-prozesuetan oinarrituta egiten dira, eta federazio horien gatazkek hauteskunde-sistema baldintzatzen dute batzuetan, EAEko federazioen batzar nagusiak lurralde-federazioen batzar nagusietan oinarrituta osatzen baitira.



179. Hortaz, araugintza-hautu arrazoizkoa da legegilearentzat, dauden aukerak kontuan hartuta; izan ere, legegileak, berriro diogu, askatasun handia du kirolaren antolamenduari lotutako horrelako elkarteak taxutzeko.
180. Aukera hori gauzatzeari dagokionez, aurreproiektuaren **33. artikulua**ren 1. paragrafoan adierazita dago EAEko kirol-federazioak direla, oro har, eta lurralde-federazioak dituzten modalitateak salbuetsita, Euskal Autonomia Erkidegoan beren kirol motako kirol-jarduera eta kirol-lehiaketa ofizialak bultzatzen, kalifikatzen, baimentzen eta bideratzen dituzten erakunde bakarrak. Manu honek, esan bezala, eredu-aldaketa bat txertatzen du, baina eredu berriak zabalik uzten du kirol-modalitate batzuetan lurralde-federazioak mantentzeko aukera, artikulua horren 2. paragrafoan jaso legez.
181. Hori horrela, alde batetik, planteamendu berri bat proposatzen da, funtsean EAEko federazioetan oinarritua, baina, bestetik, lurralde-federazio batzuk mantentzeko aukera aurreikusten da. Horra antzeman dugun arazoa: aurreproiektuak apenas ematen du pista edo irizpiderik argitzeko lurralde-federazioek zein kasutan jarraituko duten indarrean, edota, hala badagokio, lurralde-federazio berriak zein kasutan sortu ahal izango diren.
182. Lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du horri buruz:
- a) Kirol-federazioen berregituraketa 2024ko hauteskunde-prozesuaren aurretik egin beharko da.
 - b) Eusko Jaurlaritzak lurralde historikoetako foru-organoekin elkarlanean finkatu behar ditu egitura, gutxieneko lizentzia kopurua eta federazio-sistemari gaur egun dagoen bezala eusteko beharrezkoak diren gainerako baldintzak, kirol-modalitate bakoitzean.
 - c) Azkenik, Eusko Jaurlaritzari ahalmena emango zaio, lurralde historikoetako foru-organoekin elkarlanean, berregituraketa hori gauzatzeko beharrezkoak diren neurri ekonomiko, ondare-neurri edo beste edozein motatako neurri guztiak dagokion dekretuaren bidez ezar ditzan.
183. Laburbilduz, esan dezakegu federazio-egitura berriaren oinarria dela Euskal Autonomia Erkidego osoan kirol-federazio bakarra ezartzea, kirol-modalitate bakoitzerako; baina lurralde-federazioak existitu ahal izango dira gutxieneko egitura eta lizentzia kopuru bat duten kirol-modalitateetan (uste dugu gutxieneko horiek Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko dituela).
184. Bada, planteamendu horrek zalantza batzuk eragiten ditu, eta komeniko litzateke argitzea.



185. Alde batetik, uste dugu aurreproiektuak gehiago sakondu beharko lukeela federazioen egitura berriaren definizioan, eta argitu beharko litzatekeela ea aurretik existitzen ziren lurralde-federazioak soilik mantendu ahal izango diren, baldin eta dekretu bidez ezarritako irizpideak betetzen badituzte, ala etorkizunean, ezarritako irizpide horiek betez, lurralde-federazio berriak sortu ahal izango diren (dela orain irizpide horiek betetzen ez dituzten kirol-modalitateetan, dela kirol-modalitate berrietan).
186. Uste dugu egokia dela alderdi horiek argitzea; izan ere, 37. artikulua 4. paragrafoari eta lehen xedapen gehigarriari erreparatzen badiegu, ez dirudi etorkizunean lurralde-federazio berriak sortzea posible denik. Hala bada, argi eta garbi adierazi behar da hori, etorkizunean ere gai honen inguruan gatazkarik ez sortzeko.
187. Gure gomendioa da, halaber, aurreproiektuan bertan zehatzago ezar dezatela zer elementu eta irizpide hartu behar den kontuan lurralde-federazioek iraun ahal izateko. Horrek ez du esan nahi irizpideak aurreproiektuan bertan zehaztu edo kuantifikatu behar direnik, baina badirudi, lizentzia kopuruaz gain, «egituraren» eta «mantentzeko beharrezkoak diren gainerako baldintzen» aipamen generikoa ez dela nahikoa eraginpean egon daitezkeen lurralde-federazioek jakiteko berregituraketak haiei eragingo dien ala ez.
188. Sinplifikatzeko asmo horren harira egin da, orobat, bigarren aldaketa garrantzitsua federazio-antolamenduan.
189. Aurreproiektuak, **34.3 artikuluan** aurreikusi duenez, kirol-federazioen batzar nagusietan kirol-erakundeak soilik egongo dira ordezkaturak, eta ez dira gobernu-organo gorenean egongo federazioa osatzen duten gainerako estamentuak. Horren truke, estamentuen presentzia sendotu da kirol-federazioen administrazio-organoetan; eta 34. artikulua 4. paragrafoak betebeharrak gisa ezartzen du estamentu horiek Zuzendaritza Batzordean presentzia izan beharko dutela nahitaez, haiek sartuta hautagaitza-zerrenda itxietan.
190. Planteamendu hori, oraingoan ere, araugintza-hautu bat da, nahiz eta, kasu honetan, bideragarritasun juridikoari buruzko galderak planteatu.
191. Adierazi dugunez, kirol-federazioak legez eraturako elkarteak dira (EKren 22. artikuluan aurreikusitako ezberdinak) eta, ondorioz, ez daude Elkarteko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 2.5 artikuluan xedatutakoaren mende. Izan ere, legegile arruntak jorratu ahal eta behar du arauketa hori; hark erabakiko du, hala badagokio, estamentuek organoetan parte-hartzeari dagokion eredia; izan ere, lantegi horretan, ez du talkarik egingo Konstituzio Auzitegiak, EKren babesean dauden elkarteei dagokienez, uztailaren



23ko 173/1998 Epaian ezarritako mugekin (legegile arruntak ezin du ezarri, elkarte bat eratu eta aitortzeko baldintza generiko gisa, elkartearen barne-antolamendu mota orokor bat –«antolamendu demokratikoa»–).

192. Edozein kasutan, federazioen egiturari eta funtzionamendu-araudiari dagokienez, demokrazia eta ordezkagarritasunaren printzipioei eusten zaie berariaz aurreproiektuaren 33.3 artikuluan, eta hori erabat koherentea da Administrazioaren eskuordetzearen bidez betetzen dituen funtzio publikoekin. Zentzu horretan, nekez defendatu liteke legeak kirol-federazioentzako ezarri ahal izatea antolaketa bat, funtzionamendua arau demokratikoen mende ez duena.
193. Baina, bestalde, aurreratu dugunez, aurreproiektuaren planteamenduak batzar orokorretik kanpo uzten ditu federazioen zenbait estamentu, eta indarreko EKLn gobernu- eta ordezkaritza-organo goren gisa jasota egotetik, gobernu-organo gorena soilik izatera igaor da (34.3 artikulua). Hortaz, aztertu beharra dago horrek eraginik ote duen erakunde demokratiko baten berezko sufragio unibertsal aktiboan.
194. Zalantzarik gabe, izendapenak berak agerian uzten duenez, kirol-erakundeen multzo batek osatzen ditu kirol-federazioak eta, horregatik, batzarrean presentzia izan behar dute ezinbestean. Baina federazioen parte dira 32.1 artikuluan jasotako pertsona fisikoak ere (baliteke bestelako «behar» maila batean), eta, ondorioz, batzarretik kanpo uztea ezin da soilik kudeaketa edo gobernantzari lotutako alderditzat jo.
195. Konstituzio Auzitegiak berak, 173/1998 Epaian, zabalik utzi zuen ikusmolde demokratiko horren barnean «aukera bat baino gehiago» egon ahal izatea, baina komeni da gai horren gainean ohartaraztea, organo sustatzaileak behar bezalako balorazioa eta azalpena egin ahal izan ditzan.
196. Aurreproiektuan «gobernu-organo goren» gisa jasotzen den horretatik kanpo utzita kolektibo horiek, elkartzeko modu berezi (baina elkarte azken batean) honetako kide batzuen parte-hartzea sakrifikatzea proposatzen da. Sakrifizio hori justifikatzeko, hauteskunde-prozesua sinplifikatzearekin lotutako arazoak aurkezten dira funtsean; eta, Batzorde honen aburuz, ezin da esan sakrifizioa konpentsatu dela kolektibo horietako kide batzuek administrazio-organoan parte-hartzearekin.
197. Batzordearen ustez, kide batzuen parte-hartzeko eskubidea horrela sakrifikatzea bakarrik justifika daiteke baldin eta, horren bidez, hura bezain funtsezkoa den beste eskubide bat babestu nahi bada elkartearen eraketan. Baina ez dirudi kasu honetan egoera hori denik.



198. Esan dugun bezala, aurreproiektuaren 32. artikuluan kirol-federazioaren kontzeptua ezartzen da, eta kontzeptu horren barnean biltzen dira kirolariak, teknikariak eta epaileak, baita kirol-erakundeak ere. Hala, 33. artikulua 3. paragrafoan eutsi egiten zaie, jakina, demokrazia eta ordezkagarritasunaren printzipioei, baina, horiei dagokienez, zenbait zalantza eragiten ditu aurreproiektuaren planteamenduak.
199. Aurreproiektuak federazioen arauketan txertatzen duen hirugarren berritasun gisa, aldatu eta murriztu egiten dira publikotzat jo behar diren federazio-funtzioak. Gai hori aurreproiektuaren **39. artikuluan** argitzen da; hartara, funtzio publiko administratibo gisa kalifikatutakoak berrikusi dira (1. paragrafoa), baita paragrafo berri bat txertatu ere (6. paragrafoa), zeinak zenbait funtzio ezartzen baitizkie federazioei (edozein kasutan, pribatuak).
200. Aurreproiektuaren **37. artikulua** kirol-federazio berrien eraketari buruzkoa da. Gai honetako aldaketarik garrantzitsuena aurreproiektuak planteatu duen eskema berritik dator, lurralde-federazioen existentzia arau orokorraren salbuespena baita.
201. Hala eta guztiz ere, Batzordeak uste du abagunea aprobetxatu beharko litzatekeela, hala badagokio, etorkizuneko legeak argi eta garbi ezar dezan Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzioak zer izaera duen kirol-federazio bat sortzeko prozesuaren barnean.
202. Aurreproiektuak, indarreko EKLk bezala (22. artikulua), federazioa inskribatzea aurreikuspen du federazio bat eratzeko baldintza gisa; horrek aukera ematen du pentsatzeko inskripzioak, kasu horretan, izaera eratzaileria duela, apirilaren 3ko 94/1990 Dekretuaren 30. artikuluan, Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazioen erregistroaren antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoan, zehazki baieztatzen denez.
203. Hala eta guztiz ere, nahiz eta kontuan hartu erkidegoko legegileak tarte zabala duela bere lurraldean diharduten kirol-federazioak eratzeko behar diren baldintza eta betekizunak arautzeko, aurreikuspen horrek talka egin dezake elkarten araubide orokorrarekin, arazo bat sortuz. Izan ere, kirol-federazio bat sortzeko prozesuak aukera ematen du bereizteko elkarte-erakunde gisa eratzen den unea (hau da, nortasun juridikoa hartzen duen unea) eta Administrazioaren eskuordetzearen bidez funtzio publiko jakin batzuk betetzeko gaitasuna hartzen duen elkarte-erakunderen aitortza jasotzen duen unea.
204. Printzipioz, ez dago eragozpenik legez kirol-federazio bat sortu nahi duten subjektuek bigarren mailako elkarte bat sortzeko, aitortza hori eskatu gabe ere; horrelakoetan, inskribatu beharrik gabe eskuratuko du elkarteak nortasun



juridikoa, elkarteen araubide orokorrean erregistroan inskribatzea ez baita ezinbestekoa elkarte bat sortzeko, soilik publizitate ondorioetarako (Elkartzeko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua; eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 7.2 artikulua).

205. Aitortza eskatu eta, azkenik, ukatu egiten den kasuetan, elkarteak ezin izango du kirol-federazio gisa jardun, kirol-araudiaren ondorioetarako; baina indarrean jarraitu ahal izango du, eta nortasun juridikoari eutsi ahal izango dio, araubide orokorrari atxikitako elkarte gisa.
206. Pertsona juridiko gisa eratzearen eta kirol-federazio gisa aitortzearen arteko aldeak, hortaz, aukera ematen du kirol-araudia EKren 22. artikulua babespain bildutako elkarteen arauketarekin bat etortzeko, segurtasun juridikoari eragin gabe; izan ere, aitortzarik eta inskripziorik gabe, elkarte berriak ezin izango ditu funtzio publikoak garatu, legeak kirol-araudiari atxikitako kirol-federazioei esleitzen dizkielako soilik.
207. Araudiaren geroko garapenean xedatutakoa ikusita, kontu hori guztiz argitzeko, federazio bat eratzeari buruzko erreferentziak kendu beharko lirateke, eta Administrazioak federaziotzat aitortzeari buruzko erreferentziekin ordeztu; halaber, aipatu 94/1990 Dekretua ere aldatu beharko litzateke, arau hori baita argiena inskripzioaren izaera eratzaileri dagokionez.
208. Berritasuna ez den arren, uste dugu 42. artikulua –Kautela-neurriak– ere aldatu beharko litzatekeela, zehaztasun terminologikoa hobetze aldera. Kautela-neurri esaten zaie prozeduraren garapena eta xedea oztopa dezakeen arrisku oro saihesteko helburuz ezar daitezkeen neurri guztiei. Kasu honetan, ekimena sustatu duen organoak berak aitortu du neurri horiek era autonomoan hartu izan direla federazioen iraupena arriskuan egon denetan; hortaz, ez dira prozedura egoki egiten dela bermatzeko neurriak, baizik eta Administrazioak kirol-federazioetan esku hartzeko benetako ahalmenak, eta, ondorioz, halaxe kalifikatu beharko lirateke.
209. Titulu honen laugarren berritasunaren ondorioz, aurreproiektuaren **43. artikuluan** txertatu da federazioek Gobernantza Onaren Kodea onartu behar dutela.
210. Batzordeak ez du oztupo juridikorik ikusten aurreproiektuak, federazioei dagokienez, horrelako dokumentu bat onartzeko betebeharra ezar dezan, eta ongi iruditzen zaio legeak berak ezartzea dokumentuak bete beharreko jarraibideak. Europako ministroek, Europako Kontseiluak hala eskatuta, kirol-arloko gobernu onaren printzipioak onartu zituzten 2004. urtean. Kirol-arloko



gobernu onaren printzipioak aginduzko arau juridikoen bitartez ezar daitezke, edota «lege bigunen» (*soft law*) bidez ezarritako gomendio bitartez.

211. Berriro ere hartu behar dugu abiapuntutzat kirol-federazioak funtzio publikoak betetzen dituzten elkarte pribatuak direlako ideia. Elkarte horien antolamendu eta funtzionamenduan izan beharreko esku-hartze publikoak, legearen eta haren garapen-erregelamenduen bitartez gauzatuko baita, helburutzat izan behar da erakunde horiek erdietsi nahi duten interes publikoa babestea, ahal den neurrian horien eremu pribatua ere zainduta, hala funtzioen egikaritzeari nola antolamenduari dagokienez. Araudi bidezko esku-hartzeak, hortaz, lortu nahi den helburuaren heinekoa izan behar du.
212. 43. artikulua aztertuta, argitu behar den lehenengo alderdia da, hain zuzen ere, araua aginduzkoa den, ala gomendioak baino ez diren, eta, ondorioz, federazioek betetzea borondatezkoa den, eta hori dirulaguntzen bidez sustatuko den.
213. Bigarren aukeraren alde, artikulua honen 2. paragrafoak xedatzen du kode hori onartzea eta betetzea «kontuan hartu beharreko irizpidea izango dela ... laguntza publikoetan», kirol-arloan eskumena duen sailak ematen dituenetan, baina aginduzko aukeratzat hartzearen aldeko argudioak sendoagoak dira. Alde batetik, artikulua 1., 3. eta 4. paragrafoetan hitzez hitz jasotzen duenez, federazioek bete behar dituzten «gutxieneko edukiak» eta zenbait «betebehar» «onartu beharko dituzte». Bestalde, tesi hori babesten dute aurreproiektuaren 122.kk) edo 141.i) artikuluetan kode horretaz jasotzen diren zehapenek, hurrenez hurren, diziplina-araubidean eta zehapen-araubidean jasotakoek.
214. Ezin dezakegu ahaztu, edozein kasutan, federazioen finantzaketa ez dela Administrazioen ahalmena soilik; betebeharra ere bada eta. Hortaz, finantzaketa hori eskuratzeko betekizun berriak ezartzeko orduan, zuhurtziaz jokatu behar da, nahi ez den egoerarik gerta ez dadin. Alternatiba gisa, 2. paragrafoa alda daiteke, gobernu onaren kodea onartu eta betetzea lehentasunezko irizpide izan dadin, Administrazioaren laguntza publikoen zenbatekoa zehazteari dagokionez (adib., 5/2016 Legea, uztailaren 19koa, Andaluziako kirolari buruzkoa).
215. 3. paragrafoan xedatzen da kodean arautuko direla federazio-organoen jarduketa-arauak, eta horrek nahasmena eragin dezake dokumentu horren eta kasuan kasuko estatutuen artean. Nahasmenak saiheste aldera, jarduketa-arauak ezabatzea gomendatzen dugu, eta, horrela, gobernantza onaren kodearen gutxieneko edukia ezartzera mugatzea.
216. Halaber, gutxieneko edukiaren barnean jasota daude zenbait debeku eta betebehar; horietako batzuk ez daude aurreproiektuan jasota, ezta EKLn edota urtarillaren 31ko Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuan ere.



217. Adibiderik adierazgarriena h) apartatua da; izan ere, badirudi zeharka ezartzen zaila federazio bateko lehendakari izateko debekua ogasun publikoaren kontrako delitua edota Administrazio publikoaren kontrako arau-hauste astuna egin duten pertsonen. Debeku hori, alabaina, ez dago aurreproiektuan jasota, ezta 16/2006 Dekretuan ere, zeinetan barne hartzen baita federazioen zuzendaritzako kideen estatutua.
218. Antzeko arazoa sortzen da 4. paragrafoan, garrantzi ekonomiko handiko kirol-federazioei buruzkoan. Alde batetik, kalifikazio hori kirol-arloko eskumena duen sailaren erabakiaren mende uzteak (5. paragrafoa) aukera zabalegia uzten du, batez ere, kontuan izaten badugu, erabaki horren ondorioz, eraginpeko federazioek obra, hornidura eta zerbitzuen kontratazioan jarduketa-printzipio jakin batzuk bete beharko dituztela. Puntu honetan ere, arrazoizkoagoa iruditzen zaigu lotura bat ezartzea betebeharraren auto-eskakizunaren eta kirol-arloko eskumena duen sailak emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoaren artean.
219. 6. paragrafoak ezartzen du Eusko Jaurlaritzak ezarri beharko duela, erregelamenduz, kirol-federazioen ordezkari- eta administrazio-organoen agintaldien muga, federazio-erakundeak berritzeko prozesua bermatze aldera. Kasu honetan, uste dugu agindu hori federazioen estatutuei eskainitako artikuluan jaso beharko litzatekeela.
220. Gobernantza onaren kodeari dagokion azken kontu gisa, bosgarren xedapen gehigarria aipatuko dugu; kodea ezartzeko betebeharrak zabaltzen du kirol-arloko eskumena duen sailak kudeatutako laguntzak jasotzen dituzten kirol-erakundeetara eta bestelako erakundeetara, erregelamenduz ezartzen diren zenbateko ekonomikoak gainditzen direnean. Xedapen horren 2. paragrafoan gaineratzen denez, kirol-erakunde eta bestelako erakunde horiei legean EAEko kirol-federazioen Gobernantza Onaren Kodeari buruz xedatutakoa aplikatuko zaie beren jarduerarekin bateragarria den guztian.
221. Horri dagokionez, aurretik ere ohartarazi dugu aurreproiektuak diziplina- eta zehapen-ondorioak aurreikusi dituela gobernantza onaren betebeharrak betetzen ez diren kasuetarako [122.kk) artikulua] edota ardurarik eza bada Kodea onartzeko betebeharrak betetzean [141.i) artikulua]; hortaz, betebeharrak argi eta garbi adierazi behar dira, zehapenen alorreko *lex certa* printzipioa betetze aldera. Hala, azken tartekari dagokionez behintzat «(...) beren jarduerarekin bateragarria den guztian», Batzordeak uste du betekizun hori ez dela behar bezala konplitzen.
222. **45. artikulua** federazioen arauen publizitateari buruzkoa da. Berritasun gisa, horrelako arauak (estatutuak, erregelamenduak eta horien aldaketak) ez dira,



orain arte bezala, aldizkari ofizialetan argitaratu beharko, izan ere, *«dagokion kirol-federazioaren eta kirol-arloan eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoetan argitaratuko dira»*.

223. Estatutuak aldizkari ofizialean ez argitaratzeko erabakiak iruzkin espezifikoa merezi du. Indarreko EKLren arabera, hala EAeko federazioen estatutuak nola lurralde-federazioenak lurralde-eremuari dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira. Hala eta guztiz ere, argitalpen hori ez da izan haiek balia garri edo eraginkor izateko ezinbesteko betekizuna, zabalkunde-betebehar baizik.
224. Kontu honek dakarren arazoa zuzenean lotuta dago federazio-arauei izatearekin eta, bereziki, federazioen estatutuen izatearekin. Doktrinak ez du kontu honen gainean adostasunik lortzen, nahiz eta zaila den federazioen estatutuak antolamenduzko araudi pribatu soil gisa ulertzea; are gehiago aurreproiektuaren 39.1 artikuluan xedatzen denean estatutuak onartzea dela funtzio publiko administratiboetako bat. Halaber, zaila da ulertzea nolatan aplikatu nahi zaien federazio-estatutuei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikuluan xedatutakoa –arauei publikitate–; izan ere, kirol-federazioak erakunde pribatuak dira eta ez daude lege horren aplikazio-eremuaren barnean, beren funtzioetako batzuk egikaritzean, bai ki, artikulua hori aplikatu dakiekeen arren.
225. Doktrina-eztabaida alde batera utzita, Batzordearen aburuz, gaiaz ondorioz atera nahi bada, federazioen izatera pribatua aitortzetik abiatu behar da –premisia horretan oinarritzen dira bai aurreproiektua bera bai indarreko EKL–. Jarrera hori oinarri hartuta, estatutu-arauei balia garritasun edo eraginkortasuna ezin da dagokion aldizkari ofizialetan argitaratzearen baldintzapean egon, salbu eta legeak berak hala xedatzen badu.
226. Auzitegi Gorenak, diziplina-erregelamenduen argitalpenari dagokionez, kontuan hartzen du lehiaketa ofizialetan parte hartu nahi duten kirolariak soilik inskribatzen direla federazioetan; hortaz, federazioetan sartzea borondatezkoa izanik, federazioen arauak ezagutuz eta onartuz egiten dutela ulertzen da (2012ko uztailaren 24ko Epaia. 2012/7998 JB). Horrenbestez, ez da beharrezkoa aldizkari ofizialetan argitaratzea.
227. Hortaz, legegilearen esku dago erabakitzea (kirol-erakundeen erregistroko inskripzioa bezala) nola bermatuko den arau horiek behar bezala ezagutaraztea. Aukera guztien artean, aurreproiektuan aurreikusitakoa da gaur egun interesdunei zabalpen eta ezagutza handiena bermatzen dien etako bat.



228. 45. artikuluan planteatzen den araugintza-haututik harago, manuak bi ohar formal ere iradokitzen ditu.
229. Lehenik, uste dugu egoitza elektronikoak soilik egin diezaiokeela erreferentzia Interneten herritarren esku dagoen webgune bati, zeinaren titularra baita berau kudeatu eta administratzeaz arduratzen den administrazio publikoa. Hori dela eta, erakunde pribatuen kasuan (halakoak dira kirol-federazioak) ez litzateke izendapen bera erabili beharko, eta egokia litzateke «webgune» edo «web-orri» esapideaz ordeztea.
230. Bigarrenik, ez da egokia «kirol-arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren» egoitzari egiten zaion erreferentzia. Nahikoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza aipatzea, baina, kirol-arloko eskumena duen sailean egoitza elektroniko espezifiko bat ezarri nahi bada ere –egun jasota ez dagoena–, testuan adierazi beharko litzateke «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean kirol-arloko eskumena duen sailaren egoitza elektronikoa».
231. Gure aburuz, komeni da **50. artikuluan** jasotako bideragarritasun-planak lotura izatea, materialki zein sistematikoki, 43. artikuluan jasotako «kautela-neurriekin» edo esku-hartzeoekin, bien helburua baita federazioaren iraupena arriskuan jar dezaketen egoerak oneratzea.
232. VI. kapituluak EAEko kirol-federazioen batasunari eta euskal selekzioei buruzkoa da. Kasu honetan, testuaren koherentziari eusteko aldaketaren bat baino ez du aurkezten aurreproiektuak, eta 55. artikulua 2. paragrafoak eutsi egiten dio, formula asoziatibo horietarako ere, barne-egitura eta jarduteko araubidea demokraziaren eta ordezkagarritasunaren printzipioetara egokitzeko betebeharrari; hori horrela, organo edo kide guztien hautaketa elkartutako kirol-federazio guztien boto aske, zuzen, berdin eta sekretu bidez egitea ezarriko dute.
233. VII. kapituluak ia aldaketarik gabe eusten dio indarreko EKLk Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroari dagokionez xedatutakoari.
234. **59. artikulua** bere horretan eutsi dio, aldaketarik gabe, indarreko EKLren 42. artikulua 2. mezuari, zeinaren arabera ezinbesteko baldintza baita kirol-erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak kirol-programetan ematen dituen laguntza publikoak jaso ahal izateko, lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eta kirol-arloko legerian jasotako gainerako onurak baliatzeko.



235. Planteamendu zabala aurkezten dela ikusita, eta horrek izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, egokia litzateke mezu hori aztertzea; izan ere, gure barne-zuzenbidean txertatu da 2006/123/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (zerbitzuen zuzentaraua). Hala, nahiz eta Zuzentaraan (35. kontuan hartuzkoa) agerian geratzen den irabazi-asmorik gabeko kirol afizionatua eremu horretatik kanpo geratzen dela, baliteke artikulu horrek hartatik eratorritako mugaren bati eragitea. Balizko gatazka bati aurrea hartze aldera, komenigarria izan daiteke mezu bat txertatzea, gogorarazteko xedapen hori aipatu zuzentaraan ezarritakoaren arabera aplikatuko dela beti.

VI. Titulua - Kirol-lehiaketak eta lizentziak

236. VI. tituluak bi kapitulu ditu. Lehenengoa kirol-lehiaketei buruzkoa da. Apartatu honi dagokionez, zenbait ohar formal egin behar ditugu.

237. Lehendabizikoa **61. artikuluan** 4. paragrafoari dagokio, komeni ez diren bi mezu negatibo ematen ditu eta. Lehenengoan ezartzen da ofizialak ez diren jarduera edo lehiaketetan ez dela beharrezkoa izango kirol-federazioen baimena, nahiz eta lizentzia federatua duten kirolariek parte hartu. Kasu horretan, uste dugu mezua argiagoa litzatekeela federazioaren baimena behar duten jarduera edo lehiaketak –ofizialak soilik– adieraziko balira.

238. 61. artikuluan 4. paragrafoan jasota dagoen bigarren mezuari dagokionez, testua are ilunagoa da, nekez uler daitekeen mezu negatiboa barne hartzen baitu. Hauxe dio: «Kirol-federazioek ez dute eskumenik beren kirol-modalitateari dagozkion beren lurralde-eremuko lehiaketa edo jarduera guztien gainean».

239. Kasu honetan, mezua era positiboan ezartzea gomendatzen dugu berriro; hau da, adieraztea zein lehiaketa eta jardueraren gainean duten eskumena federazioek.

240. Antzeko akatsa egiten da **62. artikuluan** 2. paragrafoan. Kasu horretan, aurreproiektuaren asmoa da argi uztea lehiaketa ofizial federatuen antolamendu materiala ez dela funtzio publiko administratibo bat; izan ere, egun, indarreko EKLren araubidean, halakotzat hartzen da. Nolanahi ere, uste dugu funtzio publiko administratibotzat jotzen diren federazio-funtzioen zehaztapena aurreproiektuaren 39. artikuluan finkatu behar dela.

241. 64.1 eta 65.2 artikuluen gaineko ohar hauek ere izaera formala dute.

242. **64.1 artikuluan**, azken zatiaren idazketa aldatzea gomendatzen dugu. Lehiaketaren emaitza aurrez zehazteko hiru adibide daude, bada, horien ordez, idazketa preskriptiboa erabili, eta arau orokorrari honako hau gaineratzea



proposatzen dugu: lehiaketaren emaitza aurrez erabakitzea bideratutako ekintzat hartuko dira jokalari-zerrendan bidegabe sartzeko ekintzak, nortasuna ordeztekoak, lizentzia lortzeko datuak faltsutzekoak.

243. Ildo beretik, esan bezala, komenigarri deritzogu **65.2 artikuluan** idazketa aldatzeari. Hala, adibide gisa jarritako bi egoera horien ordeztu, gai horien gaineko aginduzko idazkera bat ematea gomendatzen dugu: batetik, liga erregularren azken jardunaldietako ordutegiak bateratu beharra, eta, bestetik, «*hirugarrenentzako sariak*» debekatzea.
244. Titulu honen II. kapituluak kirol-lizentziei buruzkoa da.
245. **71. artikuluan** federazio-lizentziak jorratzen dira. 4. paragrafoan xedatutakoaren arabera, kirol-arloan eskumena duten lurralde historikoetako foru-organismoek eskola-ikasleen lizentzia federatuak baimendu ahal izango dituzte. Manu hori, egun, Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 13.4 artikuluan jasota dago; baina, dekretu horretan, mezua eskola-kirolaren lizentziari buruzko artikuluan barruan dago, eta aurreproiektuak, ordea, federazio-lizentziei buruzko artikuluan sartu du. Hori horrela, egun indarrean dagoen araudian oinarritu ezean, nekez ulertuko da azken emaitza.
246. Batzordeak ulertzen du 4. paragrafoan zera ezarri nahi dela: foru-organismoek federazioei baimena eman ahal izatea eskola-lizentziak luza ditzaten, eta lizentzia horiek, artikuluan bereko aurreko apartatuaren arabera, federazio-lizentzien baliokideak dira erregelamenduz zehazten diren ondorioetarako. Edozein kasutan, eta hori esan nahi bada ere, xedapenaren idazketa zein aurreproiektuan duen kokapena berriro aztertzeke gomendioa egiten dugu.

VII. tituluak - Eskola-adineko, unibertsitateko eta lanbide-heziketako jarduerak fisikoak eta kirolak.

247. VII. tituluak hiru kapitulu ditu. Lehen biak eskola-kirolari eta unibertsitateko kirolari buruzkoak dira; biak ala biak indarreko EKLn dagoeneko jasotako arloak. III. kapituluak, ordea, aurreproiektuaren berritasunetako bat aurkezten du: lanbide-heziketako eta batxilergoko jarduerak fisikoak eta kirolak.
248. Aurreratu dugunez, aurreproiektuak eskola-kirolari dagokionez dakarren berritasun esanguratsuena da 0 eta 6 urte bitarteko haurren kolektiboa barne hartzea. Horrez gain, hiru lurralde historikoetako eskola-kirolaren programen arteko harmonizazioa hobetzeko saiakera bat egiten da.
249. **74. artikuluan** jasota daude eskola-kirolaren «oinarri eta printzipio orokorrak». Artikulu horrek Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio eskola-adineko jarduerak fisikoaren eta kirolaren oinarri eta printzipio orokorrak arautzea, eta ereduaren ahalik eta



homogeneizaziorik handiena bermatzen saiatuko da hiru lurralde historikoetan. Indarreko EKLren eskola-kirolari buruzko kapituluan xedatutakoa berritzen duen alderdi gisa aurkezten bada ere, errealitatean, EKLren eta Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren artean ezarri zen indarreko eskemari eusten zaio.

250. Hori egiazatzeko, nahikoa da aipatu dekretuaren zioen azalpena aztertzea; izan ere, bertan baieztatzen da araudi honen bitartez *«tokian tokiko lurralde historikoaren eredu propioak homogeneizatu nahi dira, lurralde bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta geografikoetara egokituz, baina une oro errespetatuz ezarritako printzipio orokorrak, ezaugarriak eta helburuak»*.
251. 74. artikulua horren idazketak foru-aldundietako baten zenbait alegazio ekarri ditu; izan ere, idazketa zehatzagoa eskatu du (...bermatuko du...). Hala ere, ulergarria da sail sustatzaileak lurraldeek gai honen gainean dituzten eskumenak errespetatu nahi izatea eta, hala, *« ahalik eta homogeneizaziorik handiena bermatzen saiatuko da»* esaldia erabiltzea. Nolanahi ere, *«bermatzen saiatuko da»* esaldiak eragin lezakeen diskordantzia saiheste aldera, zera proposatzen dugu: artikulua horretan jasotzea araudiaren helburua izango dela homogeneizazio handiena lortzea.
252. **76.3 artikuluan**, halaber, berritasun gisa jasotzen da, indarreko EKLrekin konparatuta, nola gauzatu behar den udalerrien arteko nahitaezko lankidetzak. Hain zuzen ere, kirol-ekipamenduen erabilera lagatzea, kirol-jardueren kontrola eta programen tokiko egituraketa jorratzen dira bertan. Adierazi beharra dago, hala ere, berritasuna ezin dela halakotzat jo; izan ere, ekipamenduen lagapena jasota dago dagoeneko eskola-kirola arautzen duen dekretuan, eta aukera ematen da lankidetzak-esparruan *«beste ekintza batzuk»* abiatzeko.
253. II. kapitulua unibertsitateko jarduera fisikoari eta kirolari buruzkoa da. Kapitulu horri dagokionez, bi ohar egin behar ditugu.
254. Lehenengoak Unibertsitate Kirolaren Euskal Azpibatzerdearekin du zerikusia, zeina aurreproiektuaren **77.2 artikuluan** jasota baitago. Indarreko EKLn, Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea aurreikusten da aholku-organo gisa, zeinaren eraketa, jarduteko araubidea eta funtzioak Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen ekainaren 29ko 131/2004 Dekretu bidez ezarri baitira. Gaur egun, hortaz, organo independentea da, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailari atxikia.
255. Aurreproiektuan, azpibatzerde bat aurreikusten da, zeina, gure ustez, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren egituran integratuko baita. Artikulu honetan aurreikusitakoa, hortaz, aurreproiektuaren 6. artikuluan kontseiluari buruz xedatutakoarekin lotu behar da. Ohartarazi dugu, 6.4 artikuluan *«Lege*



honetan aurreikusitako azpibatzerdeak jasota badaude ere, ulertu behar dela azpibatzerde horiek aurreproiektuaren 77. eta 111. artikuluetan aurreikusitako azpibatzerdeekin nahas daitezkeela. Ondorioz, lehenik eta behin, terminologia argitzeko beharra azpimarratu nahi dugu.

256. 77.2 artikuluan, ordea, azpibatzerdeari esleitzen zaizkio egungo EKLk Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzerdeari esleitzen dizkion ezaugarriak, kontseiluaren egituraren barruan dagoen egoera berria kontuan izan gabe. Testuinguru berri horretan oinarrituta, hau da, kontseiluaren parte dela kontuan hartuta, azpibatzerde berriak haren ezaugarriak ditu, eta ez du zentzurik artikulua honetan berriro adierazteak, beste organo bat balitz bezala. Era berean, ez du zentzurik erregelamendura jotzeak azpibatzerdearen eraketa, izendapen-sistema, jarduteko araubidea eta funtzioak ezartzeko, gai horiek guztiak aurreproiektuaren 6.4 artikuluan eskatzen den erregelamendu-garapenean bilduta egon beharko dira eta.
257. 78. artikulua ere berrikusi beharra dago, 1. paragrafoaren hasieran unibertsitate-programei erreferentzia egiten baitie, aurretik aipatu izan balira bezala, aurreproiektuan aurretik plan horien identifikazio edo definiziorik jaso gabe. Ez dakigu omisioren bat gertatu den edo idazketa-akats bat den, baina, edozein kasutan, berrikusi egin behar da, mezu argi eta koherentea helarazi ahal izateko.
258. III. kapitulua, Lanbide-heziketako eta Batxilergoko jarduera fisikoari eta kirolari buruzkoa, aurreproiektuan barne hartuta egotea da iragarri diren berritasunetarik bat, izan ere, aurreproiektua ikastetxeetako irizpideen eta baliabideen arabera sustapen-neurriak aurreikustera mugatzen da, eta horri ezin zaio jarri eragozpen juridikorik.

VIII. titulua - Ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza. Boluntarioak.

259. Titulu honi dagokionez, **83. artikuluan** Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolaren arauketari erreparatu behar diogu.
260. Aurreproiektuaren artikulua honetan, indarreko EKLn jasotakoaren antzera aurreikusten da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola, «jarduera fisikoa» terminoa erantsita, proiektatutako gainerako araudiarekin bat eginez. Eskola administrazio-zerbitzu gisa definituta dago, indarreko EKLn Kirolaren Euskal Eskola definituta dagoen bezala; baina horrek ez digu galarazten ohartarazpena egitea Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziari buruzko 7. artikuluan aurreikuspenaren inguruko azterketan iragarri genituen gai batzuei buruz.



261. Horri dagokionez ere, beste batzuetan bezala, indarreko legean xedatutakoan oinarritu arren, uste dugu gaia berrikusteko eragozpenik ez dagoela eta berriro aztertzeko arrazoiak daudela.
262. Alde batetik, Batzordearen aburuz, 1. paragrafoan eskolari esleitutako funtzioek ez dakarte, nahitaez, *ad extra* edo hirugarrenen aurreko ondorioak dituzten administrazio-egintzak ematea, eta, ondorioz, haien definizioa unitate administratibo kategoriara birbidera daiteke. Kasu horretan, ez litzateke legean aurreikusi beharko, nahikoa izango bailitzateke berau sailaren egiturari buruzko dekretuan sartzea.
263. Gaur egun, otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan kokatzen du Kirolaren Euskal Eskola, eta hori berdin ezarri ahalko zatekeen lege baten bidez izan gabe ere. Are gehiago, legea ez da beharrezkoa eskola zerbitzu gisa finkatzeko, eta sailaren egituraren diseinua lege baten bidez ezartzeak ez dio inolako abantailarik eskaintzen antolamenduari. Aitzitik, esan daiteke sailaren antolamenduaren zati bat arauaren mailari lotuta egongo dela, nahiz eta, oro har, maila horretako egituraren definizioa Jaurlearitza dagokion.
264. Onartu behar da, halaber, eskolaren lehendabiziko pertzepzioa, hau da, administrazio-unitatea izatea, ez zaiola erraz egokitzen 83. artikularen 3. paragrafoan xedatutakoari. Paragrafo horretan, arauak erregelamendura jotzen du Eskolaren antolamendua, eskumenak eta funtzionamendua finkatzeko, eta horrek aukera ematen du egiazko administrazio-organotzat jotzeko. Hala eta guztiz ere, eta indarreko EKLren antzeko araudiarekin, ez da egin Kirolaren Euskal Eskolaren erregelamendu-garapenik. Egiturari buruzko dekretuak, ordea, aurretik esan dugunez, Jarduera Fisikoaren Zuzendaritzaren barnean kokatzen du Eskola, bertan txertatuta hala organikoki nola funtzionalki; beraz, horrek aukera ematen du administrazio-unitate baten aurrean gaudela berresteko.
265. Batzordeak, azken batean, ez du uste egokia ez komenigarria denik legeak administrazio-unitateen sorreran eta diseinuan esku hartzea; izan ere, esku-hartzea ez da beharrezkoa, lortzen den bakarra baita antolaketa modu hori ulertzeko era jakin bat lotzea legearen indarraldira.
266. Helburua bada jarduera fisikoaren eta kirolaren gaineko eskumena duen sailari aitortzea 83. artikularen 1. paragrafoan aurreikusitako funtzioak (koordinazioa, aholkularitza eta sustapena) aitortzea (jarduera fisiko eta kirolaren arloko prestakuntzari lotuta), helburu hori berdin lor daiteke funtzio horiek arlo horretan eskumena duen sailari esleitzuz, legean haren egitura organikoaren nondik norakoak –partzialki bada ere– zehazteko beharrik gabe.



IX. titulua - Kirolarientzako laguntza eta babesa

267. IX. tituluak hiru kapitulu ditu. Kapitulu horietan bigarrenak, arriskuen estaldurari eta erantzukizun zibilari buruzkoak, 87. artikuluan, erantzukizun zibileko aseguru-kontratu bat sinatzera behartzen ditu kirol-zentroen ustiatzaileak, kirol-jardueren antolatzaileak eta kirol-zerbitzuen emaileak, instalazioen edota jardueren baldintzek erabiltzaileei, parte-hartzaileei eta beste edozein pertsonari eragin liezazkieketen kalteei aurre egin ahal izateko.
268. Artikulu horren 2. paragrafoak geroko erregelamendu-garapenera igortzen gaitu, nahiz eta xedatu xedatzen duen jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudian xedatutakoak aplikatuko direla osagarri gisa, estaldura horiek onartzen ez diren bitartean.
269. Jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerari buruzko araudia martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan jasota dago egun, zeinaren bitartez arautzen baitira jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak. Arazoa da –indarreko araudian ere gertatzen da– dekretu horretan kontuan hartzen diren kapital bakarrak direla aseguru-polizan gutxienez aurreikusitako behar direnak, lokal, gune edo establezimenduen gehieneko edukiera baimenduaren arabera . Hau da, lokal eta instalazioen titularren eta ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatu edo publikoen ikuspegitik jorratzen da aseguruaren estaldura.
270. Aurreproiektuaren kasuan, ulertzen dugu betebeharraren helmen subjektiboa handiago dela, kirol-zerbitzuen emaileak ere barne hartzen baitira, eta haren estaldura ez dagoela soilik kirol-ekitaldi baten balizko ikusleei zuzenduta; izan ere, estaldura eman behar die bertan parte hartzen dutenei, kirol-instalazioen erabiltzaileei edo kirol-zerbitzuen hartzaileei ere.
271. Aldi baterako konponbideak, beraz, zati batean baino ez du betetzen 87. artikuluan 1. paragrafoan aurreikusitako estaldura.
272. Beste ikuspegi batean oinarrituta, xedapenak ziurgabetasun ukitu bat eragiten du betebeharraren horri etorkizunean aplikatu dakiokeen erregimenari buruz, ez baitu diseinu egokirik eskumenei eta antolamenduari dagokienez. Are gehiago, esan liteke arautzeko teknika ezegokia duela, xedapen iragankor batean jasota egotea legokiokeelako.
273. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak (IJO) 25. artikuluan aurretik ere jasotzen zuenez, *«establezimendu publikoetako titularrek eta ikuskizun eta jardueren antolatzaileek aseguru-kontratu bat izenpetu beharko*



dute bertaratutako jendeari eta hirugarrenei gerta dakizkiekeen kalteen erantzukizun zibila estaltzeko araubidez zehazten diren estaldura eta zenbatekoez».

274. JJJOLen eranskinean jasotzen da jendaurreko ikuskizunen, jolas-jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa, eta bertan ageri dira honako hauek: jendaurreko kirol-ikuskizunak, kirol-arloko jolas-jarduerak, kirol-establezimenduak eta kirol-arloko jolas-establezimenduak.
275. JJJOLen aurreikuspen hori zehaztera etorri da 44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituenak.
276. Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 42. artikulua heldu egiten dio diseinu horri, eta bertan xedatzen denez, kirol-lehiaketek *«erantzukizun zibileko aseguruak izan beharko dute. Aseguru horrek jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerari buruz indarrean den araudiak xedaturiko ezaugarriak izango ditu. Araudi hori agindu bidez moldatu ahal izango da zenbait kirol-lehiaketaren ezaugarrietara».*
277. Laburbilduz, gune itxietan edo aire zabalean antolatzen diren kirol-ekitaldi, -ikuskizun eta -jardueren segurtasun-baldintzen, inguruabarren eta sor litezkeen arriskuen arabera izango da aseguruak. Besterik da, aurretik esan dugunez, kirol-zerbitzuak emateari buruzko aurreikuspenak araudi espezifiko bat behar izatea, kirol-gunearen edo -ekitaldiaren ondoriozkoa ez den berezitasunen bat egoteagatik, adibidez. Horrelakoetan, dekretuan bertan edo erkidegoko araudiaren barruan islatu beharko litzateke.
278. Edozein kasutan, gorabehera hori geroko eztabaida baterako utz daiteke, eta ez du merezi lege-testu batean aurrez ezartzea. Beraz, egokiagoa dirudi indarreko EKLren testuari eustea, bertan aurreikusten baita aseguruak izateko betebeharrak, eta erregelamendu-garapenera igortzea.
279. IX. titulua III. kapituluaren, aurreproiektuaren beste berritasun garrantzitsuetako bat dago. **88. artikulua** 1. paragrafoan xedatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko lehiaketetan parte hartzen dutenen osasun-laguntza osasun-sistema publikoaren kontura emango dela. Hala, zabaldu egiten da indarreko EKLn xedatutakoa; izan ere, kirol-jardunari lotutako asistentzia sanitarioari dagokionez, kirol-jardunaren ondoriozko larrialdiko hasierako arreta zehaztugabea aurreikusten da soilik, legean nahitaezko aseguruak aurreikusita ez dagoen kasuetarako.
280. Estaldura sanitarioaren zabalkundeari ezin zaio eragozpen juridikorik jarri, nahiz eta, prozeduraren analisisan adierazi legez, haren ondore ekonomikoak



ezagutzeko aukerarik ez dagoen, horri buruzko aurreikuspenik barne hartu ez delako.

281. **89. artikulua** arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kirol-jarduera jakin batzuk debekatu ahal izango ditu, pertsonen osasuna babesteko beharrari datxekion interes publikoari lotutako arrazoiak direla-eta; gainera, lurralde historikoetako foru-organo eta udalerrietara ere zabaltzen da dagokion lurraldean erabaki hori hartzeko aukera.
282. Berriro ere, indarreko EKLn jasota egotearekin justifikatzen du sail sustatzaileak aurreikuspen hori, baina horrek ez du esan nahi haren edukia zalantzan jartzeko aukerarik ez dagoenik, baldin eta hobetu beharreko edo funtsik gabeko alderdiak identifikatzen badira.
283. Hala, adierazi du debekua «kirol-jarduera jakin batzuei» dagokiela, horiek identifikatzeko gutxieneko ezaugarririk aipatu gabe. Debekuaren arrazoiak ezartzeko orduan, kontzeptu juridiko zehaztugabe konplexu batean oinarritzen da soilik: «pertsonen osasuna babesteko beharrari datxekion interes publikoa».
284. Argi dago Konstituzioan babestutako ondasun juridikoa dela pertsonen osasuna (EK, 43. artikulua), baina, hala ere, kontzeptu horri helduta soilik, legeak ezin du Administrazioa gaitu horrelako esku-hartze mugatzaile bat martxan jartzeko, Konstituzioak berdin-berdin bermatzen baititu bai segurtasun juridikoa bai arbitrariotasunaren debekua.
285. Araudiari dagokionez, segurtasun juridikoaren printzipioa «aplika daitekeen antolamendu juridikoari eta juridikoki babestutako interesei buruzko segurtasun» gisa ulertu behar da (Konstituzio Auzitegiaren 156/1986 Epaia, urtarrilaren 31koa, 1. OJ) «araudia argia eta ez nahaslea izatea» bultzatuz [Konstituzio Auzitegiaren 46/1990 Epaia, martxoaren 15ekoa (KAB 1990, 46), 4. OJ], baita «Zuzenbidea aplikatzeari dagokionez, herritarrak boterearen jarduketaren gainean duen itxaropen funtsatu» gisa ere [Konstituzio Auzitegiaren 36/1991 Epaia, otsailaren 14koa (KAB 1991, 36), 5. OJ]. Azken batean, arau batek segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen duela ulertuko da, « (...) baldin eta berau barne hartzen duen antolamendu juridikoan, eta Zuzenbidez onargarriak diren interpretazio-arauak kontuan hartuta, arauzko testu baten edukiak edo omisioek hartzaileengan nahasmena edo zalantza eragiten badute, eta, ondorioz, araua betetzeko eska daitekeen jokabidearen gaineko ziurgabetasuna sortzen bada, edo ondorioak aurreikusteko aukera mugatzen bada...» [Konstituzio Auzitegiaren Epaiak: 96/2002, apirilaren 25ekoa (KAB 2002, 96), 5. OJ; 93/2013, apirilaren 23koa (KAB 2013, 93), 10. OJ; eta 161/2019, abenduaren 12koa (KAB 2019, 161), 4. OJ].



286. Zehaztugabetasuna abiapuntu hartuta, ezin dugu inolako argudio juridikorik eman ahalmen horren mantentzea defendatzeko, zeina, mantentzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde-mailetako organo arduradunetara zabaldu nahi baita.

X. titulua - Goi-mailako kirola

287. Aurreproiektuan goi-mailako kirolari eskainitako tituluak ez du berritasun esanguratsurik. Hala ere, zerbait azpimarratzearen, **95. artikulua**ren 4. paragrafoan xedatzen dena ekarri nahi dugu: Goi-mailako kirola babesteko programak bultzatu nahi dituzten udalerriek bikoiztasunik ezaren eta finantza-jasangarritasunaren baldintzak betetzen direla justifikatu beharko dute txosten batean, ETELen 16.7 artikuluan ezarritakoari jarraikiz». Hortaz, eskumen-alderdi espezifiko batean –goi-mailako kirola–, ETELen oro har xedatutakoa erreproduzitu eta aplikatzera mugatzen da.
288. Mezu hori, beraz, ezabatu egin beharko litzateke, ez baitu ETELen xedapen baten aplikazio zehatza besterik egiten; izan ere, udalerriek garatu nahi duten edozein eskumeni eragiten die xedapen horrek, baldin eta berezko, eskuordetutako edo besterendutako eskumen gisa jasota ez badago.
289. Esandakoa gorabehera, bi ohar egin nahi ditugu 94. eta 98. artikuluei dagokienez.
290. **94. artikulua**ren 1. paragrafoan jasota dago Eusko Jaurlaritzak antolatuko duela goi-mailako kirola, Basque Team Fundazioaren laguntza teknikoarekin. Antolamendu-hautu hori legean txertatzen da beste behin. Horri dagokionez, ikusi proiektuaren 8 artikuluekin lotuta adierazitakoa.
291. Azkenik, **98. artikulua**ren epe bat ezartzeko gomendioa egin nahi dugu. Artikuluak xedatzen du kirol-arloko eskumena duen sailak goi-mailako kirolera zuzendutako kirol-ekipamenduen plan bat landu beharko duela aldizka, baina ez da, esan bezala, aldizkakotasun horri dagokion eperik ezartzen.

XI. titulua - Jarduera fisikorako eta kirolerako guneak, ekipamenduak eta zerbitzuak

292. Aurreproiektuaren XI. tituluari jarraipena ematen zaio indarreko EKLren VIII. tituluari aurreikusitakoari.
293. Titulu honen berritasunetako bat 108. artikuluan dago, ingurune naturaleko kirol-jarduera arriskutsuei buruzkoan; izan ere, bertan xedatzen da Eusko Jaurlaritzak horrelako jarduerak antolatzeko erregelamenduzko xedapen berezi bat onartu beharko duela.



294. Beraz, gai espezifikoko batean erregelamendu-igorpena egiten da, haren garapenerako xedapen «berezirik» behar izan gabe. Izan ere, ezerk ez du eragozten Jaurlearitzak arau bakarrean biltzea aurreproiektuan garatzeke uzten diren gaietako batzuk Hori dela eta, ulertzen dugu nahikoa dela honako hau xedatzea: Eusko Jaurlearitzak garatuko dituela, erregelamenduz, ingurune naturaleko kirol-jarduera arriskutsuak antolatzeke beharrezkoak diren baldintza eta betekizunak.
295. **110. artikuluan** beste erregelamendu-igorpen bat egiten da, kirol-ekitaldiak antolatzeke segurtasun-neurrien eta osasuna babesteko gainean. Kasu horretan, jendaurreko ikuskizunen araudirako igorpena egiten da lehenik, «legez eta erregelamenduz» ezarritakora igortzen duena; baina nahikoa da gaian ezarritakora igortzea. Hau da, ez da beharrezkoa argitzea esandakoa lege- zein erregelamendu-mailako araei dagokiela.
296. Eusko Jaurlearitzak kirol-ekipamendu eta -ekitaldi bereziei dagokienez beharrezkoak diren egokitzapenak erregelamenduz ezartzeke dagokionez, agerikoa da Jaurlearitzak eskumena duela ekitaldi jakin batzuen segurtasuna garatzeke, hala kirolaren ikuspegitik, nola jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ikuspegitik. Hala eta guztiz ere, kasu horretan, igorpena ez dago behar beste definituta; batez ere, ez delako irizpiderik ematen ekipamendu edo ekitaldi bat noiz den berezia zehazteke eta, ondorioz, berariazko araubidea noiz aplikatu dakioken ulertzeke. Uste dugu, erregelamendu-igorpenari eutsiz gero, argitu egin beharko lirakeela oinarritzeko alderdi horiek, ulergarritasuna errazte aldera.

XII. titulua - Indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren prebentzioa jarduera fisikoan eta kirolean

297. XII. titulua berritasun nagusia da indarreko EKLn aurreikusitako indarkeriaren prebentzioari gehitzen zaiola arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren prebentzioa, eta, horrekin batera, arauaren beste alderdi batzuetan bezala, kirolaz gain jarduera fisikoa ere barne hartzen dela.
298. Aurreproiektuaren hautua da, beraz, gai hau mantentzea kirol-arloko araudiaren goiburua gisa ari den arauaren barruan, alde batera utzita izan litezkeen bestelako aukerak, zeinetan arau espezifikoko batean arautzen baita gai hori. Hori da, adibidez, Estatuaren kasua; izan ere, uztailaren 11ko 19/2007 Legean, Kirol-arloan indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren kontrakoan (KIL), arautzen du gai hori.
299. Esan beharra dago aurreproiektuak gai hori dagokionez dituen alderdirik esanguratsuenak agerikoagoak direla diziplina eta zehapenen eremuan; izan ere, titulu honetan, antolamenduzko formula ezartzera mugatzen da, egun Kirolean Indarkeriari aurre egiteke Batzordeak garatzen dituen funtzioak betetzeko, eta



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak horrelako jokabideen prebentzioan izan beharreko helburuak eta hartu beharreko neurriak ezartzeko.

300. Antolamenduari dagokionez, desagertu egin da Kirolean Indarkeriari aurre egiteko Batzordea, eta haren ordeztu aurreikusitako azpibatzen berri bat ezartzea. Kasu horretan ere, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluan integratuko dela pentsatzen dugu; hortaz, Unibertsitate Kirolaren Euskal Azpibatzen buruz esandakoari helden diogu berriro, bai izendapenari, bai eraketaren erregelamenduzko garapenari, kideen izendapenari eta jarduteko araubideari dagokienez.
301. Era berean, organo horren jardun-arlo nagusiaren berezitasuna kontuan hartuta, komenigarria litzateke zehaztea organo hori osatuko duten ospe handiko kideak adituak izatea beren funtzioekin lotura duten eremuetan. Izan ere, ezinbesteko betekizuna izan behar du bertako kide izateko. Ez luke inolako zentzurik izango esku hartzen duten pertsonen kualifikazioak zerikusirik ez izateak organoari esleitutako eskumenei dagokien jakintza-esparruarekin.
302. Bestalde, indarreko testuan ez bezala, aurreproiektuan ezabatu egin dira kirol-lehiaketa eta -ekitaldietan indarkeria saihesteko segurtasun-neurriei buruzko zenbait xedapen: kirol-instalazioetako prebentzio-neurriak (100. artikulua); lehiaketa ofizial profesionalak jakinarazteko betebeharrak (101. artikulua); eta lehiaketa ofizial profesionaletako segurtasun-koordinatzailea.
303. Memorian adierazitako irizpidearekin bat, xedapenen alferrikako errepikapena saihestea erabaki da, KILen jasota daudenez, zuzenean aplikatuko direlako. Aurreproiektuaren ildoari jarraikiz, egoki ematen du hartarako eskumena duen beste ezein legeriatan jasotako xedapenak ez aipatzeak. Teknika onargarria da. Batzorde honek behin baino gehiagotan aipatu duenez, beste arau batetik eratorritako edukiak barnebiltzen dituen arau bat errepikatzea legegintza-teknika arriskutsua da; izan ere, ezinbestean alderdiren bat zehazteko soilik erabili beharko litzateke, edota testua hobeto ulertzeko beharrezkoa denean.
304. Edozein kasutan, segurtasun-arloari buruzko edozein aipamen erabat ezabatzeak nahasmendua eragin diezaiolke operadore juridikoari. Horregatik, komeniko litzateke xedapen gehigarri batean sartzea, kirol-lehiaketa eta -ekitaldietako segurtasun-neurriei dagokienez, KILen eta JIJOLen ezarritakoa beteko dela, aurreproiektuan xedatuta ez dauden alderdietarako.
305. Horrekin batera, EKLren 103. artikuluan jasotako debekuak ezabatu dira. Horietako gehienak zehapenei eskainitako apartatua bildu dira. Ez da gauza bera gertatu mota orotako alkoholaren edariak sartu eta saltzeko debekuari dagokionez. Aurreko kapituluaren adierazi den bezala, ez da gai hori barne hartu,



Adikzioen eta Droga-mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean eta KILen aurreikuspen espezifikoa duelako.

306. Hori horrela, mezua errepikatu behar da, eta azpimarratu behar da xedapen gehigarri bat txertatu behar dela, gaiari aplikatzen dakizkiokeen maila juridikoak argitze aldera.

XIII. eta XIV. tituluak - Kirol-arloko diziplina-araubidea, eta Kirol-ikuskapena eta zehapen-araubidea

307. Aurreproiektuan eutsi egiten zaio zehatzeko ahal administratiboaren eta kirol-arloko diziplina-ahalaren artean egun egiten den bereizketari.
308. Aurreproiektuaren justifikazio-memoria teknikoak planteamendu hori defendatzen du, eta beharrezkotzat jotzen du dualtasun horri eustea, ulertzen baitu bataren eta besteen araubide juridikoak, prozedura-esparruak, aplikazio-eremu subjektiboak, arau-haustea eta abarrak erabat ezberdinak direla. Hala eta guztiz ere, araudi-aukera bakarra ez dela ere onartzen du. Hala, adibide eta aukera ezberdinak eskaini dira, hala nola 1/2019 Legea, urtarrilaren 30ekoa, Kanarietako jarduera fisikoarena eta kirolarena, zeinetan kirol-arloko diziplina-araubidea soilik kontuan hartzen baita; edota Kirolaren Lege-aurreproiektua, Ministro Kontseiluak 2019ko otsailaren 1ean onartutakoa, erregimen bien integrazio nahasia eskaintzen duena.
309. Hori horrela, arauan bi erregimenei eusteko proposamenean oinarritzen gara; biak ala biak era bateratuan jorratuko ditugu, gaiaren gaineko analisi koherenteagoa eta kohesionatuagoa eskaini ahal izateko.
310. Lehen oharra da ez dagoela aurreikuspenik segurtasun-arloko arau-hauste administratiboaren eta kirol-arloko diziplina-neurrien arteko balizko bateragarritasunaz, EKLren 104.3 artikuluan hala ezarrita egon arren. Horixe adieraziko duen manuren bat egotea proposatzen dugu, interpretazioan izan litezkeen zalantzak argitzeko.
311. Alde batetik, azpimarratu nahi dugu **131.3 artikulua** berrikuntza dakarrela, indarreko EKLri dagokionez: «Gertakari berak oinarri juridikoaren identitatez ez dagoenean baino ez ditu jaso ahal izango administrazio-zehapena eta diziplina-zehapena». Horrela, berariaz jaso nahi da artikulatua zehapen-arloko *non bis in idem* printzipio klasikoa.
312. Hala ere, ohartarazi behar dugu lotura bereziko harremanak printzipio honen salbuespentzat jo direla, eta, esaterako, doktrinak honela definitzen dituela: «Kasuan kasuko subjektua Administrazioari gainerako herritarrak baino lotuago



dagoen harremana da, eta, ondorioz, gainerako herritarrei dagokien diziplina-araubideaz bestelako bat aplikatzen zaio».

313. Horrekin lotuta, Konstituzio Auzitegiak abenduaren 10eko 234/1991 Epai bidez baieztatu zuen salbuespen hori aplikatu ahal izango dela soilik oinarri aniztasuna dagoenean –betiere, zehapena babes horrekiko proportzionala bada–, lotura bereziko harremana egoteak ez baititu subjektuak oinarrizko eskubideez gabetzen.
314. Oinarri aniztasuna da kirol-arloko diziplina- eta zehapen-araubide administratiboen ezaugarri nagusietako bat, non arau-hausteak interes juridiko desberdinei lotuta baitaude eta arau orokorra bateragarritasunaren alde egitea baita. Hori dela eta, komeni da aipatu araua aurreproiektuaren 131. artikuluan sartzearen egokitasuna aztertzea.
315. Beste kontu bat da 130. artikuluan, diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak aldi berean agertzeari buruzkoan, txertatu nahi izatea; izan ere, kasu horretan diziplina-arloko harremanen bereizgarri den lotura bereziari buruz adierazitakoa bete beharko litzateke.
316. Edozein kasutan, zehapenen bateragarritasunari edo aldi berean agertzeari dagokionez, zenbait artikuluk jorratzen dute gaia testuan. Hala, **130. artikulua** diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak aldi berean agertzeari buruzkoa da; **131. artikulua** diziplina-erantzukizunak eta administrazio-erantzukizunak aldi berean agertzeari buruzkoa; eta **146. artikulua** administrazio-zehapenen eta diziplina-zehapenen bateragarritasunari buruzkoa. Kirol-arloko zehapen-araubide ezberdinen arteko elkarreragina eta eragin komuna jorratzen dutenez, komeni da atal horiek guztiak artikulatu bakarrean edo batzuetan biltzea, zehapen-araubidearen xedapen komunen barnean. Horrela hobetu egingo lirateke proiektuaren kalitate teknikoa, sinpletasuna eta arau-argitasuna.
317. Antzeko zerbait egin beharko litzateke erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrei buruzko xedapenei dagokienez (**126. artikuluan** jasota daude administrazio-arlokoak eta **146. artikuluan** diziplina-arlokoak). Horien bien arteko antzekotasunari erreparatuta, komenigarria da guztiak bateratzea.
318. Gauza bera esan daiteke **128. eta 147. artikuluetan** jasotako preskripzio-araubideaz, zeinak arauketa berdin-berdina jasotzen baitu, arau-hauste arinei eskainitako apartatua izan ezik. Bestalde, horiek bateratuta ere, berdin-berdin bereizi ahalko lirateke arau-hausteei eta diziplina-zehapenei aplikatu beharreko epeak.



319. Arau-hausteei eta zehapenen arlo zehatzari dagokionez, kirol-arloan *ius puniendi* printzipioaren egikaritzea ikuspegi bikoitzean oinarrituta jorratzen da, aurretik adierazi denez.
320. Alde batetik, kirol-arloko zehapen-zuzenbide administratiboaren ikuspegian, kirol-arloko arau administratiboen urraketak dira xedea, eta edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke arau-hauslea.
321. Bestetik, kirol-arloko diziplina-araubidearen ikuspegiaren helburua da jokabide hauek zehatzea: jokoaren arauen edota kirol-jarduera zein -lehiaketa ofizialen arauen kontrakoak, bai eta kirol-erakundeen estatutu- edo erregelamendu-mailako arauen kontrakoak ere. Lotura bereziko harremanaren mende dauden subjektuak izan daitezke arau-hausleak.
322. Bigarren multzo horretan, hau da, lotura bereziko harremanetan, hainbat inguruabar direla medio, aukera dago legezketasun-printzipioa mugatzeko; izan ere, borondatez kirol-erakundeetan sartu, bertako arauak libreki onartu eta lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen jokabidea arautu nahi da.
323. Halaxe jasota dago Konstituzio Auzitegiaren 2/1987 Epaian, urtarrilaren 21ekoan; eremu horretan malgutu egiten da legezketasun-printzipio formalaren exigentzia. Horrek ñabardurak dakarkio lege-erreserbaren printzipioa aplikatzeko zorrotasunari, lege-gaikuntza nahikoa eskatzen bada ere. Agerikoa da ezin dela legea alde batera utzi, baina lege-erreserbak ezberdin funtzionatzen du –ez da hain zorrotza– Administrazioaren zehapen-botere orokorraren esparruarekin alderatuz gero. Hau da, lege-erreserbaren printzipioak berezko duen oinarri materialaren zati bat galtzen da, horrelako harremanek autoantolamendurako gaitasuna erakusten baitute, Estatuaren *ius puniendi* generikotik aparte.
324. Konstituzio Auzitegiak martxoaren 23ko 81/2009 Epaian zehaztu zuenez, «testuinguru horrek legezketasun-printzipioaren exigentzia formalak eta materialak neurri baten modulatzeari eragin dezake, baina ez, ..., horiek ezabatzea. Gogora ekarri behar da lotura bereziko harreman deritzenetan subjektuak ez direla beren oinarritzko eskubideez gabetzen, eta Administrazioak ezin dituela arauak eman aurretiaz hartarako lege-gaikuntzarik izan gabe. Harreman horiek ez dira gertatzen Zuzenbidetik kanpo, haren barruan baizik, eta, hortaz, haien barruan ere indarrean daude oinarritzko eskubideak, eta, era berean, Administrazioak ez dauka lege-gaikuntzarik gabeko ahalmen arauemailerik haiei dagokienez, nahiz eta gaikuntza hori eman egin daitekeen harreman berezirik izan gabe onartezinak liratekeen baldintzetan (ikus, besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren Epaiak: 2/1987, 42/1987, eta 61/1990) (Konstituzio Auzitegiaren Epaiak: 234/1991, abenduaren 10ekoa, 2. OJ; 26/2005, otsailaren 14koa, 3. OJ; 229/2007, azaroaren 5ekoa, 2. OJ; eta 162/2008, abenduaren 15ekoa, 3. OJ)».



325. Bestalde, aurreproiektuaren memorian jasotzen denez, kirolean bada debekua eta zehapena merezi duen bestelako jokabiderik. Horrela, bereiz genitzake kirol-dopinari lotutako alderdiak; kirol-arloko indarkeriari, arrazakeriari, xenofobiari eta intolerantziari lotutakoak; kirol-ekitaldi eta -ikuskitzen antolakuntzari lotutakoak, eta ordena publikoarekin lotutakoak.
326. Aurreproiektuan, printzipioz, lehiaketan kirol-alderdiei eta kirolariak, klubek edo federazioek kontuan izan behar dituzten arauak hertsiki lotuta ez dauden alderdien edukia ez arautzea erabaki da.
327. Hala, testuan ez da kontuan izan dopinaren kontrako borroka, dagoeneko jasota baitago ekainaren 21eko 12/2012 Legean, Kiroleko Dopinaren aurkakoan. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzeari dagozkion alderdiak (IJOlen jasotakoak) ere ez dira barne hartu nahi izan, ezta KILetik eratorritako edukiak ere. Hala eta guztiz ere, geroago ikusiko dugunez, azken bi apartatu horietan, bi gai horiei lotutako zenbait eduki sartu dira zehapen-araubidean.
328. Hori dela eta, kirol-arlo osoari eragin diezaiokeen zehapen-arauen bilbearen askotarikotasuna kontuan hartuta, testuak barne hartu beharko lituzke kirol-arloko zehapen-araudia argitzen lagun dezaketen elementuak, baita zehagarriak diren eta zehazki kirol-arlokoak ez diren beste alderdi batzuekiko harremana argitzen lagun dezaketen elementuak ere.
329. Zentzu horretan, komenigarria litzateke xedapen gehigarri bat txertatzea, eta bertan adieraztea hau: lege honetan xedatzen ez denerako, kiroleko dopin-arloko eta indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren arloko arau-hausteen eta zehapenen araubidea une bakoitzean gai horiek arautzen dituzten legeetan ezarritakoa izango da. Nolanahi ere, gertakari batzuk lege honen eta aipatutako araudi bereziaren arabera kalifikatu eta zehatu daitezkeenean, bigarrena aplikatuko da, kontuan hartuta espezialitate-printzipioa eta bigarren horretan balizko konkurrentziari buruz aurreikusitakoa.
330. Hori guztia, arau honen aplikazio-eremua argi zehazte aldera eta kirol-arloari lotutako zehapen-eremua identifikatze aldera.
331. Beste alde batetik, araudiaren testua hobeto egituratu eta ulertzeko, aukera egon liteke egokitzapen edo aldaketaren bat egiteko.
332. Alde batetik, aukera egokia izan liteke **XIII. eta XIV. tituluak**, kirol-arloko diziplina-araubideari eta kirol-ikuskitzen eta zehapen-araubideari buruzkoak, titulu bakarrean biltzea, adibidez, «kirol-arloko zehapen-araubidea» edo «kirol-arloko gatazken ebazpena» izenez.



333. Horretaz gain, araudia argiagoa izango litzateke aurretiko artikulua bat txertatuz gero, eta bertan definituz arauak barne hartzen dituen administrazio-prozeduren multzoa eta aplikazio-eremua. Ondoren, kirol-arloko zehapen-araubide administratiboari dagozkion apartatuak garatuko lirateke eta, ostean, kirol-arloko diziplina-araubidea eta kirol-ikuskapena.
334. Kirol-arloko diziplina-araubideari dagokionez, **113. artikulua** apartatu bat izan beharko luke kirol-diziplinaren mende dauden subjektuak argi eta garbi bereizteko, operadore juridikoak interpretazio-prozesuen beharrik izan ez dezan –batez ere, 114. artikuluan xedatutakoari dagokionez–, erantzuna ateratzeko. Horrela, haren mende geratuko lirateke kirol-jardueran zuzenean zein zeharka parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztiak –kirolariak, teknikariak, epaile edo arbitroak, kirol-erakundeak eta horien zuzendari zein administratzaileak, baita antolamendu-egituraren parte diren pertsonak ere–.
335. Horrekin batera proposatzen dugu 113. artikulua 3. paragrafoan argi eta garbi jaso dadila kirol-arloko arau orokorrak «kirol-erakundeen estatutu- edo erregelamendu-mailako arauak direla».
336. Aurreproiektuaren **115.2 artikulua** xedatzen duenez, hutsunerik egonez gero, zehapen-prozeduraren oinarrizko legeria aplikatuko da, ordezkoko gisa. Aurreikuspen hori, baina, sakon aztertu behar da, kirol-federazioen izaera juridikoaren inguruan aurretik adierazi dena kontuan hartuta. Izan ere, izaera horren arabera, ezberdinak izango dira administrazio-prozedura erkidearen oinarrizko araudiaren rola eta zentzua.
337. Ordezko aplikazioaren irizpidea aztertuta, pentsa liteke aurreproiektuak zuzenbide publikoko korporaziotzat jotzen dituela kirol-federazioak, eta, beraz, APELen 2.4 artikulua aplikatuko zaiela. Baina, nahiz eta doktrinan kirol-federazioen gaineko jarrera hori defendatzen duten askok, ezin dugu alde batera utzi Konstituzio Auzitegiaren 67/1985 Epaiari buruz aurreratu duguna –eta aurreproiektuak ere ez du halakorik egiten–; izan ere, goi-auzitegiaren arabera, funtzio publiko administratiboak esleituta dituzten elkarte pribatuak dira federazioak. Izaera espezifikoki hori behin baino gehiagotan berretsi eta erabili da jurisprudenzian, araubide juridiko ezberdina ezartzeko federazioen egintza ezberdinei (besteak beste, Auzitegi Gorenaren Epaiak, 2010eko abenduaren 22koa, EDJ 2010/290688).
338. Nahiz eta kirol-diziplina publikoa izan eta arau juridiko-administratiboaren mende egon, egia da kirol-arloan kirol-federazioek rol garrantzitsua dutela, kirol-modalitate edo -espezialitateetatik eratorritako askotariko kasuistikaren eraginez. Hori dela eta, araudia sortzeko gaitasuna dute eta, ondorioz, araudia oso sakabanatuta dago. Oro har, kirol-federazioen esku uzten da, beren



eskumen-eremuaren barnean, arau-hauste eta zehapenen sistema propioa ezartzeko aukera, zehapen-prozedura administratiboaren oinarritzko printzipioak errespetatuta.

339. Gauzak horrela, gai horri buruzko legeetan planteatutako aukerak aztertuta, uste dugu hau dela aukerarik onena: Diziplina-ahala baliatzean, lege honetan jasotako bermeez gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren III. kapituluaren jasotako printzipioak beteko dira. Hori, jakina, egintza horiek guztiak APELen 2.2.b) artikulua aurreikusitakoaren barruan sarturik.
340. Arau-hausteei eskainitako apartatua, arau-hauste oso astunak jorratzen dira **121. artikuluan**. Horiei dagokienez, atentzioa eman behar dugu a), b), c), d) e) eta g) letretan aurreikusitako kasuen gainean.
341. Ezin dezakegu ahaztu diziplina-araubidearen eremu subjektiboa kirol-jardunarekin, haren antolamenduarekin eta egiturarekin harreman estua duten pertsonen kontra zuzenduta dagoela. Aurretik adierazi diren jokabideak, KILetik eratorriak, ez daude kirol-jardunari hertsiki lotuta, baizik eta lehiaketetan edo kirol-ikuskizunetan kirol-jardunak eragindako indarkeria, xenofobia, arrazakeria eta intolerantzia debekatzera bideratuta. Ikuspegi horretan oinarrituta, portaera horiek gehiago dagozkio antolatzaile edo ikusleei, baina ezin da baztertu diziplinaren eremu subjektiboari atxikitako beste pertsona batzuek ere parte hartzea. Hala eta guztiz ere, salbuespenak salbuespen, haien parte hartzea ez da hertsiki kirol alorrekoa izango.
342. Nolanahi ere, aurretik adierazi dugunez, beharrezkoa da segurtasun publikoarekin edo ikuskizunak eta kirol-ekitaldi publikoak antolatzearekin zerikusia duten administrazio-zehapenen bateragarritasuna. Zentzu horretan, nahikoa izango litzateke jokabide horiek zehapen-zuzenbide administratiboari eskainitako apartatua tipifikatzea (140. artikulua) eta 121. artikuluan jasotzea aurreikuspen generiko bat, zeinaren arabera diziplina-zehapena jasoko baitute artikulua horietan jasota dauden arau-hausteak egiten dituzten guztiek, baldin eta kirol-arloko diziplina-araubidearen aplikazio eremuari atxikita badaude.
343. Ezin ahaztu dezakegu zehapen-araubide administratiboaren aplikazio-eremuak barne hartzen dituela edozein motatako pertsona fisiko eta juridikoak. Hori dela eta, kirol-arloko diziplina-araubidea aplikatzen zaien pertsonen ere eragingo die, arlo horretako izaera juridikoa duten arau-hausteak egiten dituztenean.
344. Horrekin lotuta, aurreproiektu honen azpian datzan gaietako baten sorburua da indarkeria, arrazakeria eta xenofobiaren arloko araudian eta jendaurreko



ikuskizun eta jolas-jardueretakoan jada aurreikusita dauden arau-haustek tipifikatzea kirol-arloko zehapen-araubideari dagokion apartatuan.

345. **140. artikulua**ren barruan a), c), d), e), f), g), h), j) l) eta o) apartatuak topa ditzakegu. **141. artikulua**n, berriz, c), d), j) eta o) letrak.
346. Kirol-ekitaldi edo -ikuskizun jakin batzuetan gertatzen diren jokabideak zehatzerakoan, sarritan ez da erraza izaten zehaztea zer ordenamendu juridiko den egokia, edota zer legeria aplikatu behar den erabakitzea. Horrek ziurgabetasun juridikoa eta nahasmena eragin ditzake hartzaileengan.
347. Edozein kasutan, sarritan gertatzen den kontua bada ere, jokabide horiek arautzeko eskumen-tituluaren inguruko arazoa konpondu du Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 1eko 148/2000 Epaia, kirol-ikuskizunetan indarkeria prebenitzeko erregelamenduari buruzkoak, baztertu egin baitu «kirola» arloan sartzeko aukera.

Hau da, adierazten du hura aplikatu behar dela, funtsean, futbolari lotutako kirol-lehiaketei dagokienez, baina ez du kirol-jarduera hartan diziplina jarriko duen araurik, ezta kirol horren oinarri materiala eratzen duten klubak, federazioak, ligak edo bestelako erakundeak eraginpean hartuko dituen araubide juridikorik ere. Haren arau-educia ez da soilik lehiaketa horien kirol-garapenari buruzkoa, ezta kirolariak, ligak edo federazioek kontuan izan behar duten mota horretako arauari buruzkoa ere.

348. Honetan zentratu beharko litzateke eztabaida: zer neurri sar daitezkeen segurtasun publikoaren gaian, eta zer neurri jendaurreko ikuskizunetan. Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak honako hau adierazi zuen:

Horrela, hemen aztertzen ari garen kirol-partidak direla-eta sor daitezkeen indarkeria-agerraldiei dagokienez, «segurtasun publikoaren» alorrean sartu ahal izango da pertsonak eta ondasunak babestera bideratuta dagoen eta helburu zehatz gisa herritarren ordena eta lasaitasun publikoa aldatzea ekar lezaketen arrisku larriak saihestea helburu duen neurri edo kautela oro. Hori «hertsiki lotuta dauden neurri prebentiboak eta erreaktiboak» nahitaez abian jarri adierazi behar da (Konstituzio Auzitegiaren 104/1989 Epaia, 4. OJ), eta neurri horiek eskatu beharko dute, derrigorrezko osagarri iraunkor gisa, ordena-indarren benetako presentzia ikuskizuna garatzen ari den bitartean, arrisku-faktoreak zuzenean kontrolatzeko. Azken batean, kontuan izan beharko da gertaerak edo «aparteko egoerak» egon daitezkeela (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 11ko 52/1993 Epaia, 5. OJ), baina arriskuaren aparteko izaerak eta salbuespenak ez dute



sinonimo izan behar, zeren futbol-partida horien ezaugarria da, hain zuzen ere, herritarren ordenan gerta daitekeen aldaketa ohikoa izan daitekeela.

Aitzitik, «ikuskizunak» deituriko alorrean honako agindu hauek atxiki beharko dira: ikuskizunetako ordena egokia izan dadin zainduz, ohiko esku-hartze «administratiboaren bitartez (arrunta eta etengabea)» pertsonak eta ondasunak babestera bideratzen direnak (Konstituzio Auzitegiaren 313/1994 Epaia, azaroaren 24koa, 6. OJ); hortaz, babesak eskatzen badu segurtasun-indarrek esku hartzea, hori ez da ikuskizunak kontrolatzeko ohiko prebentzio-sistema osatzen duen elementutzat hartuko. Azken batean, ikuskizunetako polizia bereiziko da bere neurriek eta xedapenek ahalbidetuko dutelako ekitaldia modu ordenatuan garatzea, dagokion ikuskizunaren izaeraren arabera, eta ez da aparteko neurririk hartu beharko, zeren garapen ordenatua bermatzeko neurri haiek nahikoa ez badira, «segurtasun publiko» zorrotzeko neurriak ezarri beharko baitira (Konstituzio Auzitegiaren 54/1990 Epaia, martxoaren 28koa, 3. OJ).

Azaldutako kanona beste bi elementurekin batera integratu behar da. Alde batetik, poliziarenak ez diren funtzio jakin batzuk poliziarenak direnekin «lotuta egotea edo haiekin osatzea» (Konstituzio Auzitegiaren Epaiak: 104/1989, 6. OJ; eta 175/1999, 5. OJ). Bestetik, «polizia autonomiko» propioaren gaineko eskumenean haren dimentsio organikoari eta funtzionalari buruzko eremu bat sartzea, aurretik ere adierazi dugunez.

349. Gauzak horrela, bi aukera daude. Lehena: aipatu arau-haustea, segurtasun publikoari eta jendaurreko ikuskizunei dagozkienak, artikuluetatik kentzea, eta kirol-arloko diziplina-araubidearen arau-hausteen apartatuan araubide horietarako igorpena egitea, batzuen eta besteen osagarritasuna kontuan hartuta. Eta bigarrena: adierazitako arau-hauste guztiak edo batzuk zehapen-araubide administratiboari eskainitako apartatuan mantentzea, baina horien gainean zehatzeko ahala zer organok duen adierazita (kasu honetan, segurtasun-arloan eskumena duen saila).
350. Horri guztia, ezertan eragotzi gabe xedapen gehigarri baten bidez babes-klausula bat ezarri ahal izatea, kirolarekin, oro har, lotutako zehapen-zirkulua itxi ahal izateko.
351. Bestalde, 121.q) artikuluan jasota dagoen arau-haustea eratzen duen egitatea berriro aztertzeko proposamena luzatzen dugu, a) apartatua bikoiztu dezakeelako.



352. Konstituzio Auzitegiaren 81/2009 Epaian, 2009ko martxoaren 23koan, ezarritako doktrinaren ondorioz, analisi honetan aipatzeko modukoa da “nullum crimen nulla poena sine lege” araua. Epaiak, konstituzio-kontrakotasuneko arazo bat ebazte aldera, Kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen 69.3.c) artikulua deuseztasuna deklaratu zuen, honako hau xedatzen baitzuen: «Arau-hauste arinak dira titulu honetan arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta ez dauden ekintza edo omisio guztiak, baldin eta kirol-ikuskizunei aplikatzen dakizkiekeen arau eta araudien kontrakoak badira».
353. Arrazoibidean azaltzen zenaren arabera, 10/1990 Legearen 69.3.c) artikulua ez zuen ezein jokabideren oinarritzko azalpenik jasotzen, eta arau-hauste astun edo oso astunei eskainitako apartatuetan jaso gabeko erregelamendu-manueta igortzera mugatzen zen; hortaz, lege-erreserbaren berme materiala urratzen zuen, arauaren hartzaileei ez baitzien aukerarik ematen jakiteko zer jokabide iritsi zitekeen (erregelamendu-arauketaren bidez) zehapenen xede izatera. Horrek kontra egiten zion erabat EKren 25.1 artikuluan jasotako lege-erreserbari.
354. Epaian jasota zegoen, halaber, «arauak eta erregelamenduak» adierazpen generikoa erabiltzeak, lege-igorpena egiteko exijentziarik ezarri gabe, urratu egiten zuela lege-erreserbaren printzipioa (dimentsio formalean), izan ere:
- erregelamenduetara jotze hutsak, kirol-ikuskizunen arlokoak direla bakarrik zehaztuta –bereziki zabala eta askotarikoa baita alor horretako jarduerak, eta beste arau-hauste batzuen existentziak hainbestearaino zailtzen dute debekatuta zer dagoen jakin ahal izatea (bilatu egin behar baitira kasuan-kasuan aplikatzen daitezkeen erregelamenduak eta horietan betebeharrak ezartzen dituzten arauak), non baieztatu baitaiteke, erremisioa edo bidalketa egiten duen arautik bertatik, ez dagoela behar beste zainduta segurtasun juridikoaren balioa, besteak beste EKren 25.1 artikuluan jasota dagoena.
- Ondorioz, zehapen-araudia erregelamenduz osatzea konstituzionalki bidezkoa da, baldin eta berau babes daitekeen legean behar beste zehaztuta badaude jokabide antijuridikoaren funtsezko elementuak eta ezarriko diren zehapenen izaera eta mugak.
355. Hortaz, xedapen ireki edo zuri hauetan, zehatu behar diren arau-hausteak behar bezala zehazten ez direnez, zehatze-agintariaren irizpidearen mende uzten da apartatu bakoitzean kokatu behar diren jokabideen gaineko erabakia hartzeko eskumena, ezein legezko arauditara zehazki igorri gabe, arau generikoetara baizik.



356. Aurreko doktrinaren arabera, bidezkoa da zalantzan jartzea ea egokia ote den **121.mm), 122.mm) eta 123.h)** artikuluetan jasotako aurreikuspenak barne hartzea; izan ere, «irekitzat» eta «zuritzat» jotzen diren zehatze-xedapenei egotz dakizkiekeen ezaugarriak dituzte, eta, ondorioz, zailtasunak egon daitezke EKren 25.1 artikuluan bermatutako legezkotasun-printzipioarekin alderatzeko garaian.
357. Arriskuak aseguratu beharra, legearen 87. artikuluan ezarria, ez betetzeari dagokion arau-haustea falta oso astun gisa zehatzen da **140.w) artikuluan**. Legeak agindutako aseguru-kontratua sinatuta edukitzeko obligazioa ez betetzea arau-hauste astun gisa jasota dago jasota JIJOLen 52.12 artikuluan, baina ezin da aurreproiektuaren **141.o) artikuluan** jasota dagoen arau-hauste astunarekin nahasi, hori beste egoera bati baitagokio.
358. **148. artikuluan** aurreikusita dauden zehapen-prozeduraren behin-behineko neurriei dagokienez, uste dugu egokia dela horiek bi araubideetan komunak diren gainerako xedapenekin batera jartzea; baina, hala eta guztiz ere, zenbait ohar egin beharrean gaude.
359. Hala, otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak (ZAL), 31.1 artikuluan dioenaren arabera, adierazi beharko da, ezein kautela-neurri hartu baino lehen, interesdunari entzunaldia eman beharko diola ezinbestean. Kirol-instalazioen itxiera, c) apartatuan aurreikusitakoa, «aldi baterako» izan beharko da nahitaez, neurrien behin-behinekotasunari jarraikiz. Gainera, d) letra berria txertatu beharko litzateke –«kirol-erakundeetako karguak etetea»–.
360. Bestalde, harrigarria da zehapen-araubidearen berezko behin-behineko neurriei buruzko aurreikuspenik ez egotea; izan ere, horien espezifikotasuna kontuan hartuta, aintzat hartu beharko lirateke, aurretik adierazi dugun lege-erreserbaren printzipioa betetzeko.
361. Edozein kasutan, komenigarria litzateke azken ebazpenaren eraginkortasuna bermatzera bideratutako neurrien nomenklatura bateratzea. Hori dela eta, behin-behineko neurri izendatu beharrean, ZALen arabera, egokiagoa da kautelazko neurri izendatzea, horiek berez baitira behin-behineko. Aurretik adierazitakoaren harira, testuko erreferentziak errepasatzea komeni da, terminologia bateratzeko eta, horrela, interpretazioan nahasmenik ez egoteko.
362. Edozein kasutan, komeniko litzateke aukera hau aurreikustea: funtzionario ikuskatzaileek salbuespeneko behin-behineko neurriak ezarri ahal izatea, ZALen 32. artikuluan jasotzen denarekin bat, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasunarekin zerikusia dutenak (JIJOLen 65. artikuluan araututakoak).



363. Horrekin lotuta, eta aurretik adierazitakoarekin bat egiteko, **149. artikuluan** (zehatzeko ahalari buruzkoan) komeni da segurtasunari eta kirol-ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzeari dagozkien alderdiak bereiztea

X. titulua - Kirol-justizia

364. Kirol Justiziako Euskal Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-organo gorenena da kirol-justiziaren arloan eta, halaxe, administrazio publikoaren parte da. Horrek esan nahi du APELen aplikazio-eremuaren barnean dagoela, hain zuzen ere, 2.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hortaz, **154.1 artikuluan**, kontuan hartu beharko litzateke, hala balegokio, APEL zuzenean aplikatzea, eta ez ordezeko izaeraz; baina, azken buruan, argibide hori ere ez da beharrezkoa, administrazio-organoa baita.
365. APEL administrazio-prozeduretan era orokorrean aplikatzeari dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu Batzorde honek 72/2021 Irizpenean ere egin dituen bi ohar kontuan izatea: bata gaiaren gaineko eskumenen banaketari buruzkoa, eta bestea, espezifikoa, APELen 1.2 artikulua eta 129.4 artikulua bigarren paragrafoaren konstituzionaltasunari buruzkoa.
366. Lehenengoari dagokionez, estatuak «administrazio-prozedura erkidearen» gainean duen eskumenak (EK, 149.1.18 artikulua) aukera ematen du « prozedura mota orotarako, arau orokor eta abstraktuak» onartzeko [Konstituzio Auzitegiaren 45/2015 Epaia, 6. c OJ)]. Hain zuzen ere, «administrazioaren jardura juridikoan bete beharreko prozedura-bidearen egitura orokorra definitzen duten» printzipioak eta arauak (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, azaroaren 29koa, 32. OJ); hau da, « prozeduraren arauketa, zentzurik zorrotzenez ulertuta»: «hasiera, antolamendua, instrukzioa, amaiera, betearazpena, baldintzak eta epeak, eta dokumentuak jaso eta erregistratzea» (Konstituzio Auzitegiaren 50/1999 Epaia, 3. OJ). Halaber, zorrozki prozedurazkoak ez diren beste arau batzuk hartzen ditu barnean; esate baterako, «administrazio-egintzak egiteko modua, haien baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren baldintzak, haiek egikaritzeko baliabideak eta berrikusteko moduak, partikularrek prozeduran dituzten berme orokorrak barne» preskribatzen dituztenak (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, 32. OJ).
367. «Administrazio-prozedura berezien» araubidea ezartzeko eskumena, zeina *ratione materiæ* administrazio-jardueraren forma askotarikoetan aplika baitaiteke, «hertsiki lotuta dago Estatuak eta autonomia-erkidegoek (hurrenez hurren) administrazioaren jardura edo zerbitzu bakoitzaren funtsezko araubidea arautzeko dituzten eskumenekin» (Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Agindua, 32. OJ). 'Arlo baten gaineko eskumen legegilea autonomia-erkidego bati eman zaionean, autonomia-erkidegoari dagokio onartzea eskumena betearaztera bideratutako administrazio-prozedurako arauak, bere eskumenen esparruaren barruan Estatuko legeek ezarritako prozedura-arauei men eginez, betiere» [Konstituzio



Auzitegiaren 33/2018 Epaia, 5 b) OJ, honen aipuarekin: Konstituzio Auzitegiaren 227/1988 Epaia, 32. OJ]. Gauza bera gertatzen da autonomia-erkidegoek soilik legegintzako eta betearazpeneko eskumenak dituztenean; oro har, dagozkion administrazio-prozedura bereziak arautzeko eskumena ere izango dute, Estatuak, EKren 149.1.18 artikulua araberak, prozedura erkideari buruz (orokorra edo berezia) ezarritako arauen esparruan [Konstituzio Auzitegiaren 45/2015 Epaia, 6 b) OJ]).

368. Hori horrela, ukazina da eskumen bikoitza dela: estatu-mailakoa (prozedura erkidearen gainekoa) eta autonomikoa (*ratione materiae*, administrazio-prozedura bereziaren gainekoa).
369. Baina bi arauen arteko harremana honako hau da: «Administrazio-prozedura erkidearen arauak lotetsi egiten dituzte autonomia-erkidegoak, eta arau horietara egokitu beharko dute beren administrazio-prozedura berezien diziplina, alegia, erkidego-mailako eskumenari dagozkion prozedurena» (Konstituzio Auzitegiaren 110/2018 Epaia, 3. OJ).
370. Harreman hori zertan den eta autonomia-erkidegoen eremua arauz zehaztu dela esan daiteke, APELen 1.2 artikuluan eta 129.4 artikulua bigarren paragrafoan.
371. Hona 1.2. artikulua xedatu duena: «Lege bidez eta modu arrazoituan bakarrik sar daitezke izapide gehigarriak edo lege honetan aurreikusitakoez bestelako batzuk, hori efikaz, neurritzko eta beharrezkoa bada prozeduraren berezko xedeak lortzeko. Erregelamenduz ezarri ahal izango dira prozeduraren zenbait berezitasun, hauei buruzkoak: organo eskudunak, gaiaren araberrako prozeduraren epe zehatzak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzeak eta eskatu beharreko txostenak».
372. Hona 129.4 artikulua bigarren paragrafoak xedatu duena: «Administrazio-prozeduraren gaian araugintza-ekimenak izapide gehigarriak edo lege honetan aurreikusitakoez bestelakoak ezartzen dituztenean, haiek justifikatu beharra dago gaiaren berezitasunagatik edo proposamenean lortu nahi diren xedeengatik».
373. Aurretik adierazi dugunez, biak ala biak konstituzionaltzat jo ditu Konstituzio Auzitegiak 55/2018 eta 110/2018 epaien bidez; eta, lege-erreserbak autonomia-erkidegoen gaitasunari ezarri dion mugari dagokionez, epai horretako azkenak xedatu du ez diela eskumenei kalterik egiten, honako arrazoi hauek direla eta:
- (i) Zalantzan jarritako xedapenak ez du erabat edo modu orokorrean eragozten autonomia-erkidegoetako organo eskudunak prozeduraren arloko erregelamendu-ahalaz baliatzea. Dena den, «autonomia-erkidegoek legezko edo erregelamenduzko tresnak aukeratzeko ahalmena dute hainbat alderditan: organo eskudunak, epeak, hasteko eta bukatzeko moduak, argitaratzeak eta



bildu beharreko txostenak» [Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 Epaia, 6 c) OJ]. (ii) Zalantzan jarritako arauak lege-erreserba garatu du, zeinaren oinarria konstituzio-bermea baita, Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 Epaian aitortu denez [6 c) OJ]: «39/2015 Legearen 1.2 artikulua tarteki eztabaidagarriek era legitimoan eragiten diote autonomia-erkidegoaren antolakuntza-gaitasunari, bigarren mailako legitimitate demokratikoa duten gobernuko erregulazioak ugaritzea saihesteko eta administrazio-prozedurei araudi egonkorragoa eta gardenagoa emateko; betiere, Konstituzioaren berme baten garapenean» [EK, 105. c) artikulua]. Beraz, badaude ezarritako lege-erreserba justifikatzen duten 'arrazoi konstituzionalak' [Konstituzio Auzitegiaren 41/2016 Epaia, 7 c) OJ]]. Ondorioz, baztertu egin behar da lege-mailako araua eskatzeak autonomia-erkidegoen estatutu-eskumenak urratzen dituelakoa.

374. Hori ikusita, baieztatu daiteke ezberdinak direla lege autonomikoaren eta erregelamendu autonomikoaren eremuak, eta, azken horren kasuan, *ratione materiae* berezitasunak hauetara mugatzen direla: organo eskudunak, gaiaren araberrako prozeduraren zehatzaren berezko epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzea eta eskatu beharreko txostenak.
375. Egindako gogoeta biak egokiak dira kasu honetan, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagokion araudi-garapen osoa erregelamendu-mailako arauen bidez gauzatu baita. Lehenik, urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren bidez, Kirol-diziplinako prozedura arautzekoa bera, eta, gaur egun, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren bidez, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen baitu.
376. Batzordeak horrekin ohartarazi nahi duena zera da: APELen ordezkatutasunari egindako aipamena okerra alde batera utzita, baldin eta asmoa bada batzorde horren aurreko jarduketetan APELen aurreikusita ez dauden izapide osagarriak txertatzea, aurreproiektuan bertan jaso beharkeko liriteke –behar bezala justifikatuta–, aurretik adierazi diren elementuak soilik utzita erregelamendurako (organo eskudunak, gaiaren araberrako prozeduraren epe zehatzak, hasteko eta amaitzeko moduak, argitaratzea eta eskatu beharreko txostenak).
377. **155.4 artikuluan** xedatutakoari dagokionez, ulertzen dugu testuan «asistencias» (gastelaniazko bertsioan) jaso nahi dela, elementu horrek bakarrik behar baitu berariazko arau-aurreikuspena jaso ahal izateko.

Azken zatia

378. *Laugarren xedapen iragankorra* honekin lotu behar da: 7. artikulua Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziari buruz xedatu duenarekin. Xedapen horretan, Kultura



eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura arautzen duen araua aldatzea proposatzen du aurreproiektuak, Agentzia sortzeak berekin dakarren antolamendu-aldaketa kontuan hartuta. Horrekin baieztatu egin da Batzordeak ohartarazi duena, Administrazioaren antolamendu-alderdietan lege bidez esku-hartzeari dagokionez; hortaz, Agentziari zein Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskolari buruz esandakoari lotzen gataizkio.

IV LEGEGINTZA-TEKNIKAREN ARLOKO OHARRAK

379. Araugintza-teknikari dagokionez, kontuan hartuta bai lege-aurreproiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak prestatzeko irizpideak (Gobernu Kontseiluak onartutakoak 1993ko martxoaren 23an), bai arau-produktua hobetzeko komenigarriak diren bestelako gogoeta batzuk, ohar hauek dira egitekoak.
380. Zioen azalpenean, Euskadiko Autonomia Estatutuaren izen osoa aipatzen. Horrelakoetan, gogoan izan behar dugu arau-xedapenak aipatzen direnean izen ofizial osoa erabili behar dela –batez ere testuan agertzen den lehendabiziko aldia bada–, eta testu osoan irizpide bateratua baliatu beharko dela.
381. Testuan ahalegin handia egin da genero-hizkera zuzen txertatzeko. Laguntze aldera, eta zehatzegia izateko asmorik gabe, puntu jakin batzuk adierazi nahi ditugu, kontuan har daitezten (gaztelaniazko testuan). Hain zuzen ere, artikulua hauei buruzko oharrak dira: 90.c) eta d) («los practicantes y los deportistas»), 92. («del deportista»), 121.j) eta 155. («los miembros»).
382. 6. artikulua Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluari buruzkoa da, eta 3. paragrafoan kontseiluaren nahitaezko esku-hartzea ezarri du xedapen orokorreari dagozkien proiektuetan, baina uste dugu zehatzagoa dela adieraztea nahitaezko esku-hartze hori xedapenak egiteko prozesuari dagokiola.
383. 37. artikuluaaren tituluan eutsi egiten zaio federazio «berrien» eraketari buruzko aipamenari; adjektibo hori ez da beharrezkoa, eta memorian adierazita dago ezabatu egingo dela.
384. 38. artikuluaaren 4. paragrafoan desgaitasuna duten pertsonen federazioei eskainitako araubide iragankorra jaso da; hori xedapen iragankor batera eraman beharko litzateke, eta azken zatian jaso.
385. Ohar hauek egingo dizkiogu 69. artikuluari:
 - a) Alde batetik, 4. paragrafoan ageri den mezua ez da beharrezkoa. Agerikoa da lizentziak ematea araututa dagoela, eta ezin zaiola halakorik ukatu baldintzak betetzen dituen inori.



- b) 5. paragrafoaren azken zatian, neurriak «proportzionalak» direla esan beharrean, «proportzionatuak» direla esatea proposatzen dugu.
- c) 6. paragrafoan, «isiltasunez» tartekia ezabatzea proposatzen dugu, nahikoa baita esatea epea igaro ondoren berariazko ebazpenik eman ez bada, lizentzia emanda dagoela ulertuko dela.
386. 70. artikulua 2. paragrafoan testua zuzentzeko, «posibles sanitarias» esaldia osatu behar da gaztelaniazko bertsioan. «Posibles contingencias sanitarias» esan behar du.
387. 104.2 artikulua «eta/edo» juntagailuak tartekatzen ditu. Baina gramatika ezin da onartu; izan ere, oro har, «edo» juntagailuaren balioa eman nahi zaio. Beraz, gauza bat edo bat baino gehiago izan daitezkeela adierazi nahi denean, «edo» soilik erabili behar da; «eta» juntagailua, berriz, konbinazioaren bi kontzeptuak barne hartzen direnean soilik erabiliko da; hau da, gauza bat eta bestea –biak batera– izango dela adierazteko.
388. 110.1 artikuluan adierazi behar diren segurtasun-neurriak bermatzeko betebeharrak barne hartzen dituela, kirolgunez gain, baita establezimendu, lokal edo instalazioak ere.
389. 110.1 artikulua azken tartekiari dagokionez, lehenengo paragrafoan jaso den gaikuntza generikoari esker zehaztea beharrezkoa ez bada ere, ohartarazi nahi izanez gero kirol-ekipamendu eta -ekitaldi bereziek tratamendu espezifiko izango dutela, arrisku berezia dutelako, egokiagoa izango litzateke adieraztea kirol-ekipamendu eta -ekitaldi berezietan tratamendu espezifiko ezarri ahal izango dela, horien berezitasunetara hobeto egokitzeko.
390. 111.2.a) artikulua azken atalean, «Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-lehiaketetan» tartekia txertatu behar da, haren funtzioari dagokion eremua lehiaketako kirol-jardueretara mugatuta.
391. 158. artikulua bitartekaritza erabiltzeko EKLk jada aurreikusita dituen arbitrajere sistemei, aukera boluntario gisa. Hori dela eta, formula horiek ezartzea debekatzen denean, artikulua amaieran jaso behar dira bitartekaritza eta arbitrajea («...arbitraje- edo bitartekaritza-formulen bidez»).
392. Xedapen indargabetzaileei dagokienez, bakar batera bildu behar dira; izan ere, aipatu gidalerroetan ezarritakoaren arabera, inoiz ez da soilik klausula generiko bat ezarriko. Hortaz, EKL indargabetzen duen xedapen indargabetzailean, nahikoa da xedatutakoari babes-klausula bat eranstea, honako hau kontuan hartuta: «...baita ... honi kontra egiten dion ...(r)ri buruzko beste edozein xedapen ere».



ONDORIOA

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharrak kontuan hartu ostean, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokela onespena eman diezaion.

Eta hala ziurtatzen dugu, Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 21ean, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: Batzordeari jakinarazi behar zaio azkenean onartzen den xedapena edo ebazpena, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak (irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onartua berau) 34. artikuluan xedatzen duen moduan eta epean.

O. E.:

Jesús María Alonso Quilchano,

Idazkaria

Sabino Torre Díez,

Batzordeburua

Elektronikoki sinatua